

Karkara

karkara.eus

 Orioko eta Aiako aldizkaria · 2018ko irailaren 28a · 398. zenbakia



"Lan arduratsua egiten ari gara oposiziotik"

EH Bilduko Emeterio Iribarrek balio handia ematen dio oposizioko hiru alderdien lanari; aldiz, kolokan jartzen du EAJk egindakoa.

IZARRA ELEKTROGAILUAK

Tien21 selección **TOP21**

21 HILABETE* INTERES GABE TAE'ND KONGESIA'ND

349€ 21 HILABETE INTERES GABE TAE'ND KONGESIA'ND
16,61€ / hilabete

369€ **479€**

SAMSUNG WASHINGTARRAK
1004 CM 40"
Full HD
Smart TV
Wi-Fi Direct

GARBIKAILUA SIEMENS

5 URTEKO GARANTIA (GUREA) 10 ANO (GUREA)

Enxebre Gureak, 44
Tel. 943 83 38 81
20810 Orre (Gipuzkoa)

garay manufacture

SUKALDEAK

www.garay.eu

1985tik sukalde atzeratzen lanetan

HITZORDUA ESKATU ETA LANTEGIRA HURBILDU
Olabidea aldea 1 (Errotaberri Industrialdea)
20.800 Zarautz

943 13 31 09

ZINKU ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzan erreformak
- Teillatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

deitu eta eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Andor Zinkuneg
667 740 279

Carpinteria **Joseba** Aroztegia

ATEAK
ZOKALOAK
ARMAIURAK NEURRIRA
LEIHOAK
ESKAILERAK
AROTEGIA OROKORREAN

687 683 427
josebaarotza@gmail.com

certifikatu teknikoa
€ 24 ordu

- Komun eta sukalden erreforma
- Galdara eta termo elektrikoak instalazioak
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujotzia kendu eta dutxa jartzea
- Gremioen koordinazioa, dekoratzailea
- Zoru erradiazioak

Fontana iturgintza
Plaza Endara n°1, 20810 - Orre
fontana-ju@hoomail.es
661 262 828

Urria **ESKAILINTZA** aitzari eta osagarrietan

ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUAK

www.fontaneria-fontana.com

BPXport Karella Kiroldegia

RUNNING TALDEA
Pausoz pauso galnditu zure markaki!

f Karella-Kiroldegia-BXport t KarellaBPX

JARRI PUBLIZITATEA
KARKARAN
688859682

Sagasti LEIHOAK
Tel: 943 13 00 77 - Fax: 943 13 71 60
sagasti@sagastileihoak.com
Auzoakale katea, 83
20810 Orre

Kalitatezko materialak
PVC eta aluminioa • Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

www.sagastileihoak.com

Zarautz Hileta Zerbitzuak

- > Hilerrien kudeaketa
- > Hileta zerbitzu orokorrak
- > Zerbitzu iraunkorra

Harrespil Hilerri Zerbitzuak

bai ERROKATZEA

Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxes: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

398

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.eus

Editorea

Karkara taldea
kultur elkartea

Erredaktore burua

Ainara Lasa

Erredakzio taldea

Jon Agirresarobe
Onintza Aiestaran
Olatz Artola
Miriam Garcia
Aiora Larrañaga
Iñigo Exposito
Iñigo Gaiton
Jon Garate
Elizabete Manterola
Intza Unanue
Rikardo Uzkuudun

Publizitatea

Sonia Albizu

Zenbaki honetako kolaboratzaileak

Borja Agirresarobe
Iñaki Iturain
Jabier Zabaleta

Diseinua

Saioa Perona

Banatzzaileak

Endika Ruiz (Orio)
Manex Dorronsoro (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.450 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. Karkaran argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada

TOKIKOM



LAGUNTZAILEAK:



Aiako Udala Orioko Udala Gipuzkoako Foru Aldundia

Hasi bertsotan atalean puntuka arituko dira bertsolariak. Oraingoan Borja Agirresaroberi jarri dio puntua Asier Lizarraldeki: *Erremontek beti izan du Oriorekin lotura.* Hurrengoari ere jarri dio puntua.

PUNTUA JARRITA

BORJA AGIRRESAROBELPETEGI (DOINUA: ERREGUETAN)

1

Erremontek beti izan du Oriorekin lotura

etorkizuna ezin da eraiki izandakoen kontura. Aspaldi buelta egin al duzu gure pilotalekura? Frontoiarekin zaletasuna urte gutxitan zahartu da.

2

Juanito Iturain ta Salsamendi Azkuetarrak, Sarasua, Tarantino nahiz Lizasotarrak ta Intxauspe maisua, Xapa, Sagasti, Urretatarrak, Brit ta ni azken pausua, egur ugari eman du baina itzaltzera doa sua.

3

Galarretan eta Euskalen jarri ohi genuen saltsa, gaur egunean hartuko luke lehen izan zuten martxa. Etorkizuna izatekotan herrian behar da kantxa, zaharra margotzen aritu baino hobe da berria altxa.



Hurreng bertsolaria:

Andoni Atorrasagasti

Puntua:

Zer moduz bizi zara Zumaia aldean?



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Iñaki Gurrutxaga eta Ekain Zubizarreta

Aurtengo ekaineko KARKARAN plazaratu nuen artikuluan (396 zenbakiko 17. orrialdean) akats bat egin nuen.

Oker hura zuzentzera dator ohar hau. *Gaztetxoak sormena lantzen: Orioko idazleak* izeneko idatzian, Eusko Jaurlaritzaren Urruzuno literatur lehiaketa irabazi duten oriotarren izenak aipatu nituen, baina ez denak. Hiruren izenak izan nituen gogoan: Nere Manterola, Maialen Sarasua eta Goiuri Unanue.

Baina bi utzi nituen aipatu gabe: Iñaki Gurrutxaga Zubimendik ere irabazi zuen, 1999an, sari hori, *Espaloia* lanarekin; eta Ekain Zubizarreta Zuzuarregik ere bai, 2008an, *Itsasaren hegaldiarekin*.

Biak ere prosan idatzitako ipuin ederrak. Barkatuko ahal didate okerra! • **Iñaki Iturain.**

Euskal Dantzen ikastaroa, 18 urtetik gorakoentzat

Fandango, arin-arin, mutxikoak, larrain dantza eta bestelakoak ikasteko aukera eskaini nahi diegu 18 urtetik gorako herritar guztiei. Irailaren 26an hasita, asteazkenero, gaueko 21:00etan Kosta Tailerlean izango gara.

• **Talai-Mendi helduen dantza eskola.**

Urriaren 6an, bilketa solidarioa Orioko plazan

Irailaren 23an Grezia aldera abiatu ginen errefuxiatuak artatuko dituen erietxe batera materiala eramatera. Donostiako mediku batek urtebeteko eszedentzia eskatu du horretarako, eta proiektu solidarioari laguntzeko materiala bildu dugu Orion.

Dendariak, farmaziak, herriko elkarteak eta norbanakoek laguntza eman digute, eta janaria, osasun-materiala, haurtxoentzat janaria eta esne berezia edota gorpildun aulki

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo erre-dakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizena-ekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

bat eramango dugu Atenasera, besteak beste.

Horrez gain, Atenastik bueltan beste proiektu bat ere abiatu nahi dugu. Oraingo honetan Afrikako Senegal herrialdea izango dugu jomuga, eta eskolako mahaiak, eskola materiala, eta haurrentzako arropa eta oinetakoak eramatea da gure asmoa.

Urriaren 6an Orion egingo den Federarte Euskalsurf Kultura ekime- nean parte hartuko dugu materiala biltzeko, eta egun horretan haur arropa eta oinetakoak eta eskola ma- teriala jaso nahi ditugu.

Horrez gain, txosna ere jarriko dugu, txistorra pintxoak, sagardoa eta txakolina eskainiz.

Eskerrak eman nahi dizkiet Marisol eta Patxi harategiari eta Kutixi kafetegari egun horretarako txis- torra eta ogia emateagatik, baita Urdaira Sagardotegiari eta Arbela txakolina ere.

Bestetik, urriaren 6an *Kalefit saio solidarioa* egingo dugu, eta itsula- piko edo pototo batzuk jarriko ditu- gu txosnan elkartearantzat dirua biltzeko. Horrez gain, zozketa bat martxan jarri dugu, eta sari ederrak izango dira.

Eskerrak eman nahi dizkiet Ar- kupe elkarteari, Xixario Erretegari eta Galernako Iñaki Makazagari

zozketarako sariak emateagatik, eta aurreratu nahi dut primerako sariak izango direla.

Aitortu behar dugu, urriaren 6ko ekimenak materiala eta dirua biltzeko asmoz antolatu ditugula. Izan ere, aiarren eta oriotarren eskuza- baltasunari esker material mordo- a biltzen dugu, baina dirurik gabe ezinezkoa zaigu material guzti hori laguntza behar dutenengana erama- tea.

Horregatik, aiarrak eta oriotarrak ekimenetan parte hartzera eta euren laguntzatxoa ematera animatu nahi ditut.

• **Juan Cruz Orella.** Begiak ez itxi elkarteko kidea.

Mila esker nirekin dantzatu duzuen guztioi!

Aurten ere 'Dantzatu nirekin!' ize- neko ekimena jarri dut martxan udan, Udalaren babesarekin. LH1 eta LH6 urte arteko haurrekin egin dugu dantza uztailean eta ederki pasatu dugu koreografiak ikasten, entseatzen eta jendaurrean dantza- tzen.

Eskerrak eman nahi dizkizuet proiektu honetan laguntza eman didazuen guztiei: Udalari, hondar- tzako tabernariei eta, bereziki, nigan konfiantza jarri duzuen haur eta gu- rasoei. Poz handia eman dit zuekin batera dantza egiteak eta izugarri gozatu dut.

Aipatu nahi ditut, bereziki, Boga- Boga jatetxeko lagunak, beti nire ondoan izan direlako eta laguntza handia eman didatelako behar izan dudana guztietan. Benetan ondo por- tatu zarete nirekin. Muxu handi bat.

Udalari ere eskerrak eman nahi dizkiet, entseatzeko lokala uzteaga- tik, karteekin laguntzeagatik eta bu- kaerako 'merendola' ren gastua bere gain hartzeagatik. Eskerrik asko.

Azken urteotako esperientzia ona ikusita, gogo biziz nago hurrengo urtean ere berriro ekiteko dantza- saio hauei. Hurrengo urtean, beraz,

berriro —eta, ahal bada, hobeto—
 egingo dugu dantza elkarrekin!

• **Ayala Lopes**

Senitartekoak bat egin- da, alkoholismoari aurre egiteko

Al Anon/Alateen elkartetik idazten dizuegu, Alkoholiko Anonimoen senide eta lagunak. Gure anaidia, Alkoholiko Anonimoen paraleloa dela esan dezakegu.

Gaixo alkoholikoak bildu ordez, euren senitarteko eta lagunak elkar-tzen gara, Zarautzen dugun egoitzan (Langako Plaza, 16).

Mundu mailako elkarte bat da Alkoholiko Anonimoena, nazioarte mailan makina bat egoitza ditu eta milioika pertsoneri gaitz horri aurre egiten lagundu die elkarte honek

Senideon helburua da, elkarren artean bildu eta bakoitzaren espe-

rientziak elkarbanatzea. Modu honetara, alkoholismoa hobeto kudeatzen ikasten dugu guztion artean.

Gure bizipenen eta urteetan bizitako zein jasandako gertakarien eta esperientziaren arabera, argi ikusi dugu alkoholismoa familia guztiak pairatzen duen gaitza dela, nahiz eta batek bakarrik edan.

Jende askok ez du gure elkarte ezagutzen. Horregatik, arazo hau etxean bizi duten askok ez dakite nora jo. Lerro hauen bitartez, gurekin harremanetan jartzeko gonbidapena luzatzen diegu senitarteko horiei.

Al-Anon taldearen topagunea Langako Plaza 16. zenbakian dago. Asteartetan biltzen gara senitartekoak bertan, arratsaldeko 20:00etan.

• **Al-Anon/Alateen.** Gipuzkoako alkoholikoen senideen elkarte

■ EZKONDUTAKOAK

- Aritz Ochoa de Eribe eta Patricia Alves Dias, irailaren 4an.
- Zuriñe Melchisidor Calvo eta Luis Tomas Gonzalez Canellada, irailaren 13an.
- Fernando Madrazo Aguirre eta Naiara Fonseca Galarraga, irailaren 18an.
- Andrea Lopez Martin eta Victor Gerardo Martinez Esquiroz, irailaren 18an.
- Marius Ilie eta Oana Petronela Oita, irailaren 20an.
- Nestor Pierola Eguia eta Enea Otermin Aguirrezabala, irailaren 21ean.

■ JAIOTAKOAK

- Mohammad Hamaad Bashir Arfan, abuztuaren 30ean.
- Ana Silveira Lorenzo, abuztuaren 30ean.
- Nile De La Calle Illarramendi, irailaren 10ean.
- Aitor De Jesus Da Silva, irailaren 13an.
- Markel Navarro Garcia, irailaren 14an.

■ HILDAKOAK

- M. Karmen Garate Tolosa, Orion, irailaren 5ean, 90 urte.
- Josepa Ignacia Arruti Lizarralde, Aian, irailaren 9an, 63 urte.
- Patxi Agirresarobe Makazaga, Orion, irailaren 10ean, 83 urte.
- Bonifazia Lizaso Agirre, Aian, irailaren 15ean, 95 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

943 83 15 27



Oskar Alegria eta Bernardo Atxaga. JAVIER HERNANDEZ

30 urte beteko ditugu!

“Ilusio berezia egiten digu Bernardo Atxagarekin eta Oskar Alegriarekin Oteizari buruz izango dugun tertuliak.”



Iazko Gazte Festetako Piraten Danborrada. ETXELUZE GAZTETXEA

KARKARAK 30 urte beteko ditu 2019ko ekainean; sanpedroetan, hain zuzen ere. Ikasturte honetan hainbat ekimen egingo ditugu (joango gara xehetasunak azaltzen), 30 urte sasoiko bete eta 31.na zuen eskutik hasteko helburuarekin.

Oteiza astea da urteurrenaren aterkipean antolatu dugun lehen ekimena. Urriaren 21ean 110 urte beteko dira artista handia Orion jaio zenetik. Aldizkariaren kontrazalean duzue Udalarekin elkarlanean antolatu dugun programa osoa; guri, ilusio berezia egiten ditugu Bernardo Atxaga eta Oskar Alegriarekin izango dugun tertuliak! Oteizaren bizitzaren eta ekarpenen inguruan arituko dira bi hizlariak. Beteko al dugu Arraunetxeko areto handia?

30 urte egitera doa KARKARA, eta sasoi betean gaude, besteak beste, Gazte Festez gozatzeko. Etxeluzeko piratek programa polita osatu dute larunbat honetarako! Gazteak aipatuz, harrobian gogor ari dira lanean: Intza Unanuek bere lehen kanta eman zuen argitara abuztu bukaeran, Julen Alonsok ere udazkenean argitaratuko duen estreinako diskoaren singlea plazaratu du irailean, Benitoren abesti bilduma berria kaleratzeko ere ez da asko falta... Mahatsarena bezain oparoa dator kultur uzta!

Zinemaldian bezala, Aian alfonbra gorria jarri dute herri sarreran, bertako ibilbidea berrituta. Gainera, herriko eta inguruko landa gunetako seinaleak aldatu dituzte, bisitariak kokatzen laguntzeko. Halaber, proba-lekuaren sabaian ardi jolas erraldoia kokatu dute herritarren eskura. Aia ez da ba leku txarra hango parajeetan galdu, eta inguruari begira gozatzeko!



Aiako proba-lekuaren sabaian kokatu duten ardi jolasa. AIAKO UDALA

Aiako sarrerako ibilbidea berritu da. Lan ona egin al dute?



“Orain askoz ere hobeto dago, oztoporik gabe”

Egia esan oso txukun geratu da paseoa. Lehen harriak zeuden nonahi, eta orain ez dago inolako oztoporik. Lurra ordeka da orain, ez dago erortzeko inolako arriskurik. Aldaketa nabarmena da. Udalak lan ona egin du, eta ziur bide hau lehen baino gehiago ibiliko dela.

Normalean lagunekin joaten naiz oinez ibiltzera, edota bakarrik. Nire ustez herriak horrelako eremu irekiekin asko irabazten du.

Aiaz eta landa eremuaz gozatzeko beste modu bat da. Eta ez bakarrik pertsona helduentzat. Gazteek eta haurrek ere gozatu dezakete halako bide batekin.

Andres Odriozola



“Adinekoengan pentsatu dute, hori eskertzen da”

Osasun arazoak tarteko, ezin naiz egunero ibiltzera joan, eta ez dut ibilbideaz nahi bezala gozatzeko aukerarik. Baina itxura ikusita, oso dotore geratu da eta lehen baino irisgarriagoa dela nabaria da.

Iraganean bide hori ez zegoen adineko pertsonentzat moldatua. Obra honekin, gurpildun aulkietan dabiltzan pertsonak ere ibilbideaz eta bertatik ikus daitezkeen parajeet gozatzeko aukera dute.

Ezbairik gabe, lan honekin adineko pertsonengan pentsatu da, eta hori, Aia bezalako herri batean, eskertzekoa da.

Antonio Rezabal



“Ondo egokitutako baliabideak guztiz beharrezkoak dira”

Herriarrentzat ez ezik, oso garrantzitsua iruditzen zait kanpotik datozenentzat paseatzeko bide egokiak edukitzea herrian.

Aiara datozen bisitariak lasaitasunaz eta naturaz gozatzera etorri ohi dira eta, horretarako, egokitutako baliabideak guztiz beharrezkoak dira.

Turistak kostaldetik barnealdera erakartzeko ezinbestekoa da kalitatezko alternatibak eskaintzea. Bertakoentzat ere aukera asko eskaintzen dituzte halako ibilbide eta paseoek, familientzat, gazteentzat eta adinekoentzat.

Eli Gonzalez de Txabarri



Ubegun industriagunea, 4
Tel. 943 894 024
Fax. 943 130 144
20809 AIA - ORIO



emakume arropa - neurri bereziak
kinkiladenda - barruko arropa



50eko desberetasun familia egarria sartutakoak
Eusko Gudari, 9 - Orrio
943 134 889 [f argine/jantziak](http://argine/jantziak)

Garbine Arregi *Moda eta osagarriak*

*Herriko plaza 5
635 706 263*

propaganda goizez zabaltzeko!

ITZIAR
kirolak




Tel. 943 83 31 03

EKILORE GARBIKETAK



626417841
ekilore@outlook.es



mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: - 943 572 083
FAX: - 943 571 190
Lasenjo@hotmail.es

INES ASEÑO
ABESLARI, 1
20810 ORRIO

KAFETEGI - OKINDEGI - GOZOTEGIA **GELATTO**



lzozki naturalak - Opilak

943 578 176
Herriko enparantzan



Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba
ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

KALIOA

Arropa
Oinetakoak
Osagarriak

- Arantza kalea, 1 ■
T 943 34 885
ORRIO (Opilak)
- Zorbea kalea, 18 ■
5. Erdiko kalean kokatuta dago
T 943 02 024
ZARAUZ (Opilak)
- Ertara kalea, 10 ■
T 943 94 023
ZUMARRA (Opilak)
- Ferri bidea, 1 ■
T 943 25 175
APELLA (Opilak)

www.kalioa.es

URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

ZUR EDER
muebles tapicería alforriak

zuredersazureder.com
943 13 49 21
Polígono Ubequin Nº 1, Puerta B - 20810, Aia-Orrio

AUKERA!
50%
- ERAINOKO
DESKONTUA
KOLTZOIETAN

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47

libe
dietetika
elikadura aholkularitza



eusko gudariak 35 :: ORRIO
[sarrera Arranzale kaleatik]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com

Katu Horia
ORRIO

ESTROPALARI, 10
20810 ORRIO
tel. 943 11 66 99

LARRIANDIAK
688 80 11 29

www.katuhoria.com



Azaskun Estankoa

- Tabakoa
- Prentsa
- Eskola materiala
- Opariak

943 8312 36 Eusko Gudari, 5

Ille apaindegia
MARIJO



Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behebra
Tel. 943 13 47 29
ORRIO

“Euskara ezagutu eta ikertzeak bizitza aldatu zidan”

Kasia Mirgos

Poloniako Unibertsitateko Antropologia irakaslea

Kasia Mirgos poloniarrek primeran egiten du euskaraz, baina berari, horrek ez dio harridurarik eragiten. Uda Orion pasa ostean, herriarekin maiteminduta itzuli da etxera.

IÑIGO GAITON

Nire lagun poloniar batek harritzeko moduan egiten du euskaraz. Agian, interesgarria izango zaizue aldizkarirako. Erredakziora iritsitako abisu horri esker juntatu ginen Kasiarekin, Poloniara itzuli bezperan. Elkarrizketa hasi aurreko kafeak eskatzerako harrapatu gintuen bere euskarazko ahozko mailak.

Garbi-garbi egiten duzu euskaraz. Nolatan?

Poloniako Unibertsitatean Antropologia ikasketak egin nituen gazetetan, eta ikasgai batean euskara ikasteko aukera eskaini ziguten. Lehen egunetik hizkuntzak betebete harrapatzeaz gain, Euskal Herria ezagutzeko irrika piztu zidan. Hurrengo urtean egin nuen lehen bidaia, lagun batekin. Autostop egiten etorri ginen Poloniatik, hiru egunetan! kar kar kar.

Bidaia hartan, ausartu al zinen euskaldunei euskaraz egitera?

Bai, bai! Gainera, gauza kurioa gertatu zitzaidan. Hemengoei euskaraz egiten nien lehen hitza, baina askok gazteleraz egiteko eskatzen zidaten... Nik, ordea, jakin ez!

Sarri bisitatu duzu Euskal Herria, lan kontuengatik.

Antropologia ikuspuntutik, euskara asko interesatu zitzaidan hasieratik, eta unibertsitateko ikerketa eta proiektuak Euskal Herriaren eta euskararen historiara bideratzen saiatu naiz. Horren harira, duela hamasei



urteak ia urtero egin dut bidaiaren bat hona, leku batera edo bestera.

Hau nire bigarren etxea da gaur egun. Niretzat oso garrantzitsuak diren lagun asko ditut hemen. Egia esan, euskararen berri izan, eta hizkuntza ikasten eta ikertzen hasteak, bizitza aldatu zidan.

Polonian jende dezente du euskal kulturarekiko interesa, ezta?

Garai batean, hango jendeak Euskal Herriaz zuen ezagutzaren zati handi bat ETaren jardunera mugatzen zen, gatazka armatura. Pertzepzio hori aldatzeko lanari ekin genion, eta euskal kulturarekin loturiko tailerrak, kontzertuak, hitzaldiak, literatura itzulpenak... egiten hasi ginen. Horrela sortu zen mugimendua.

Gaur egun, Poloniako jendearentzat oso aberasgarria dela iruditzen zait.

Zein dituzu euskal sortzaile gustukoak?

Benito Lertxundiren musika oso berezia da niretzat. Hango lagun batek *lertxunditis* gaixotasuna nuela esaten zidan, bere abestiekin ematen nuen matrakagatik! kar kar kar. Mikel Laboa, Jabier Muguruza eta Izaro ere gustuko ditut. Idazleen artean Bernardo Atxaga, Harkaitz Cano, Joseba Sarrionandia eta Rikardo Arregi nabarmenduko nituzke. Kalitatezko sortzaile ugari dituzue hemen!

arkaitz taberna
 ... urio ...

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terraza ederrarekin giro ezin hobea

abeslari kalea 6 · 943 831 657

ederrategia
ANTILLA
juletsuak

Abeslari Kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

ARISTERRAZU
 jatetxea

Andatza auzoa - AIA
 Tel. 943 83 45 21

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak - beira bikoitza
- segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Gabon
 TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitartekoak

943 83 06 09

BOGA BOGA

Orio
 Hondartza bidea
 943 89 21 31

Menu Bereziak

BODEGAS
Gailur

9437 BARRIO A. 48100
 Tel./Fax 943 89 91 56
 www.bodegasgailur.com
 Ambar Errison

ZUDUGARAI

Galeriko Trikolina

Tel. 943 83 83 88
 Fax 943 83 89 58
 bukolduzudugarai@bucolnet.net
 www.bucolduzudugarai.com

HAIZE BERRI
 taberna-jatetxea-kaletegia

Plater konbinatuak, bokafak, hamburgerak, raziok, eguneko menua...

ostiraletan pintxo poteak!

eta etxera eramateko zerbitzua!
943 831 623
 Orioako kalean, Enbena 1

ITZALA

kartetan jokatzen apezpota

tel. 943 83 12 59

PIZZERIA

KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
 TELEFONOA: 943 24 89 46

Portu
ERRETEGIA

Sando Erreka Auzoa, 46
 943 89 24 94
 20809 AIA-ORIO

bratxak, kaxerak, oliban, parrilla orotik, erretxerak...

ASADOR
XIXARIO

Enko Gudarik Kalea, 2
 TEL: 943 83 00 19 - ORIO

SU KIA
 TABERNA - JATETXEA

On aghi eta gero... karta KOPA eta TOPAZ!

- OILASKO ERPIEAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENUA
- EGUNKARRIAK
- OGIA

OF. 943 832 124
 BARRIOENEN 16, 1. BARRIO

niko
 taberna

Karta · Pintxo tradizionalak
 Okindegia

Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943 53 61 27

BODEGON SARASUA
 ERRETEGIA

ETXEKO BEREZITASUNAK
ARRAIN ZOPA
PARRILA

Enko Gudari Kalea, 29-20810 ORIO · Tel.: 943 83 00 05

Haize berriak ekarrita joan da Galerna



Iñigo Exposito

Hamahiru urte. Milaka bezero. Dozenaka langile. Lan denboraldi gogorak. Baina, guztiaren gainerik, familia bat. Arrakastaren giltza

Hilabete bereziak izaten dira uda denboraldikoak Antilla hondartza aldean. Lehen eguzki izpiek mugitu ohi dute jendea herri guñeatatik hondartzara eta gauza bera gertatu ohi da eguzki izpiak hodeien atzean ezkututzen diren egun horietan, gure hondartza desertu txiki bat bilakatzen denean, haize boladak, euriak eta lainoak nagusi direnean.

Aurten, ordea, iraileko azken izpiekin batera galerna berezia sartu da Orioko Antilla hondartza aldean eta haize berriak ekarrita betirako joan da Galerna.

Hamahiru urte. Milaka bezero. Dozenaka langile. Egun eta lan denboraldi gogorak. Baina guztiaren gainerik familia bat. Arrakastaren giltza. Makazagarrek eta euren ahaideek egindako lana goraiatzekoa da. Arriskatu eta berritzaile izan dira, baina batez ere nabarmentzekoa da ia hamarkada eta erdian erakutsitako konstantzia eta gogoia. Egunero hondartzara lehen pertsonak iristerako Galerna jatetxeko kafe makina eta sukaldeak nahikoa berotu hartua izaten zuen dagoeneko. Hondartzatik azken bezeroak alde egiterako, gainera, hurrengo eguneko itsasaldirako prest zuten guztia. Olatu handienen artean nabigatzeko pronto.

Berezia. Aparta. Magikoa. Hitz gutxitan Galerna jatetxea. Oriotar asko bertan sentitu gara etxean; izan zerbitzari, sukaldari edo bezero. Gertutasuna eta goxotasuna. Asko dira lau horma horien artean betirako oroimenaren kuxan geldituko diren momentu eta egun ahaztezinak igaro ditugunak. Guztiok osatu dugu. Guztiok gara parte. Guztion bihotzean izango da. Igo haize berrietara eta gozatu; oriotarrok zuekin egin dugun moduan. Mila esker hondartza koloreztatzeagatik, egindako lan guztiagatik. Gu guztiok konkistatzeagatik. Bejondeizuela!



Rikardo Uzkudun

Hartu kontrola

Ailegatu da ordua, txapa jarri eta txipa aldatzeko. Zenbat aldiz aritu ote gara erdaraz parekoak ulertzen ez duela uste dugulako? Zenbat aldiz galdetu ere egin gabe badaezpada ere erdaraz? Zenbat aldiz inertziak, ohituraz?

Oraindik orain, ohikoak dira koardrilan, kiroldegian edo portaletako bileretan, esate baterako, horrelako egoerak. Eta uste baino errazagoa dela esango nuke inertziak aldatzea. Horretara dator Euskaraldia, ariketa kolektibo berritzailea.

Datua da, gainera, Gipuzkoan batez ere, eta gurea bezalako herrietan bereziki, euskaraz egiten ez, baina ulertzen dutenen kopurua handia dela; horietako askok, esan ezkerro, euskaraz egitea nahiago lukete gehienek, beregatik denak gaztelarrera pasatzea baino.

Eta zer pasatzen da norbaitek ez duela ulertzen esaten badu? Ba, ezer ez. Jakina, berarekin gaztelera egiten, eta taldean bagaude, belarrira itzuliz adibidez, bideak bilatu besteen hizkuntza baldintzatu gabe deseroso ez sentitzeko. Hemen bizi bada gainera, mesede egiten ari garela esango nuke, belarrira egiten joaten baitira.

Hitz egitera ausartu eta hanka sartzeko lotsa ere gaitzen errazagoa da horrela, beregan konfiantza jartzen ari garelako, besteak beste.

Izen ematea irekia dago, ausartak izan eta gure buruarekin gusturago egoteko garaia da. Hartu kontrola, aukeratu rola!

Bandereren borrokan sartuta joan da traineru denboraldia

Orioko emakumezkoen txalupa fin ibili da uda osoan, eta garaipenik lortu ez arren, inoiz baino gertuago izan dituzte banderak. Gizonezkoen kasuan, bi traineruek bina garaipen lortuta itxi dute denboraldia.

TESTUA: KARKARA

ARGAZKIAK: KARKARA, OLASAGASTI

Orioko traineruek banderen borrokan ibili behar dute. Hori eskatu behar zaie etxeko txalupei, herriko arraun zale askoren iritziz. Aurtengo traineru denboraldian, gehiago edo gutxiago, hiru traineruek estropadetan aurrean ibiltzeko helburua bete dutela esan daiteke. Hori diote denboraldiko datuek eta estatistikek.

Bigarren postuan tinko

Orioko emakumezkoen txalupak bigarren postuan bukatu du Euskotren liga. 42 punturekin itxi dute denboraldia, estropada guztietan bigarren sailkatu ostean. San Juan 54 punturekin izan da irabazle.

Sailkapen nagusian bi taldeen artean 12 puntukoa izan da aldea. Diferentzia horrek hainbat irakurketa izan ditzake. Batetik, agerian uzten du sanjuandarren nagusitasuna; jokaturako hamabi estropada horietatik, hamaika irabazi dituzte. Orio, berriz, bigarren izan da jardunaldi guztietan; erregulartasun handia erakusteaz gain, estro-

palari oriotarrak inoiz baino lehiakorragoak izan dira, eta banderak irabazteko aukera errealak izan dituzte. Ondarroako estropadan, kasu, oriotarrek sekula ez bezala es-tutu dituzte *batelerak* une batzuetan, eta inoiz, aurretik ere ibili dira.

Euskotren ligako sailkapen orokorrak hotz erakusten ditu lortutako hamabi bigarren postuak; matematikek ezkutatu arren, estropadaz estropada argi geratu da iaz-tik oriotarrek sanjuandarrei jandako tartea, eta batez ere, txalupa horiak erakutsi duen irabazteko grina.

Gizonezkoen lehen trainerua, irregularrago

2017ko denboraldia nola bukatu zen ikusita, eta iazko arraunlari gehienak aurtan ere taldean zirela kontuan izanik, gizonezkoen lehen traineruarekin espektatiba onak zeuden herrian uda hasieran.

Txalupak lauzpabost estropadetan eman du espero zen maila, eta gainontzekoetan, irregular ibili da. Hala ere, taldeak bi bandera lortu ditu, eta Zarauzko estropada-



"Emakumezkoen txalupa inoiz baino gertuago ibili da estropadak irabazte-tik."

"Gizonezkoen `B` traine-ruak bi bandera irabazita bukatu du uda."

ko bigarren jardunaldian denborarik onena egitea lortu zuen. Jon Salsamendiren hitzetan, estropalariak lan oso ona egin dute entrenamendu saioetan, baina neurtzen zailak diren faktoreengatik, estropadetan ez dute errendimendu on hori ematen asmatu.

B traineruaren denboraldi "ona"

Jon Lizarralde estropalariaren iritziz, ona izan da Orioko gizonezkoen bigarren taldearen denboraldia. *Udara hasieran ez ginen fin ibili, eta denboraldi hasieran emaitzak ez ziren espero bezain onak izan, azaldu du arraunlariak.* Hala ere, taldeak anbizioarekin egin du arraunean denboraldi guztian zehar, eta KAE2 ligan bi bandera irabazita bukatu dute uda.

Erriotan eta erlojuaren kontrako probetan lortu dituzte emaitzarik onenak. *Itsasoan jokatutako estropadetan, aldiz, ez gara nahi bezain ondo moldatu, dio Lizarraldek.* Datorren urtera begira, emaitza hobekak lortzeko aukerak izan ditzaketela uste du estropalari oriotarrak.



“Bete dugu aurtengo helburua”

Santi Zabaleta

Orio AEko emakumezkoen entrenatzailea

Denboraldi erregularra egin du aurten Orioko emakumezkoen txalupak. Estropada gehienak bigarren postuan bukatu dituzte, eta garaipenen bat lortzeko zorian ere egon dira.

LAGAITON

Santi Zabaletak telefonoz eman dizkigun erantzunetan poztasuna nabari da, beste ezeren gainetik. Entrenatzaile oriotarraren iritziz, aurtengo estropadetan nabarmen antzeman da taldeak izandako hobekuntza.

Denboraldi ona egin duzue.

Sentsazio gozoarekin bukatu dugu uda. Azaroan helburu argiarekin hasi ginen entrenatzen: aurreko postuetara gerturatzea, hori zen xede nagusia. Eta lortu dugu.

Horretarako, estropalariak exijentzia handiarekin entrenatu dute denboraldi osoan zehar. Handia izan da taldekide guztien konpromisoa.

Aurreikusten al zenuten banderengandik hain gertu egotea?

Ez zen hori helburu zehatza, ez genuen hori buruan. Duela bi urte eta erdi estropalari talde bat osatu genuen, eta hori mantentzen saiatu gara, urtez urte urratsak ematen joateko. Talde bezala haztea izan da aurtengo helburu nagusia, emaitza konkretuetan sartu gabe. Era-kutsi dugunez, aurrean ibiltzeko gaitasuna dugu.

Zehazki, zertan asmatu duzue? Eta zertan ez?

Urteko prestaketa osoaren planifikazioan asmatu dugu, eta entrenamendu saioak definitzerakoan ere bai.

Oraindik ez dugu denboraldiaren balantze sakona egin, baina uste dut ez dugula huts nabarmenik egin, findu beharreko xehetasun teknikoak egon arren.

Arraunketa luzeagoa erakutsi duzue aurten.

Taldea progresioa egiten ari da teknikoki, ziklo baten barruan, eta bai, duela bi urte baino arraunketa estilo luzeagoa dugula esan daiteke.

Zein da taldearen indargune nagusia?

Taldea bera, estropalariak elkarrekiko duten jarrera: errespetua, batak besteari ematen dion babesa, hortik sortzen den konfiantza... Momentu txarretan arraunlariak erakutsi duten jarrera ere azpimarratu nahiko nuke.

Bigarren postu ugari lortu dituzue. Nola kudeatu duzue hori psikologikoki?

Ez da erraza izan. Esan bezala, aurtengo jomuga aurreko postuetara gerturatzea zen, eta denboraldi hasieratik, uste baino gehiago hurbildu gara.

Horrek urrats bat beharren bi emateko grina piztu digu, gure buruan banderaren bat irabazteko gai ginela sinesterraino. Aurtengoa ikasketa ikaragarria izan da taldearentzat.

Nolako itxura du datorren denboraldiak?

Aurten emandako maila eta taldearen potentziala ikusita, gora egin dezakegula sinistuta nago; horregatik hartu dut beste urtebeterako konpromisoa. Gustatuko litzaidake aurtengo taldea mantentzea, baina oraindik goizegi da hori jakiteko.

“Estropadetan ez da lehertu taldearen potentziala”

Jon Salsamendi

Orio AEko gizonaen entrenatzailea

Jon Salsamendiren iritziz, entrenamenduetan taldeak maila oso ona erakutsi du, baina estropadetan ez dute errendimendu bera ematen asmatu.

LAGAITON

Hizketan hasi orduko, Jonek bere egin du aurtengo denboraldian traineruak esperotako emaitzak ez lortzearen ardura. Hala ere, entrenatzaileak oso ontzat jo du taldeak urte guztiko entrenamenduetan egindako lana: *mutilei ezin diet gehiago eskatu, beren inplikazioa eta bakoitzak izandako hobekuntza ikaragarriak izan dira.*

Zein balorazio egiten duzu denboraldiaz?

Estropadak hasi aurreko hilabeteetan, lan bikaina egin zuen taldeak. Arraunlari bakoitzaren datu objektiboak oso onak ziren udaberrian, iazkoak baino hobeak; estropalariei aurtun lehorrean neurtutako datuak ez ditu edonork lortzen. Potentzial hori uretara eramaten asmatu dugu entrenamenduetan, baina estropadetan ez.

Taldearen potentzialagatik eta iaz lortutako emaitzengatik, aurtengo denboraldirako espektatiba batzuk genituen, eta ez dira bete. Eta noski, aurkariei ere ezin zaie ezer kendu. Aurtengo maila oso altua izan da.

Azalpen teknikorik ba al du estropadetan erakutsi duzuen erregulartasun faltak?

Ikuspuntu teknikotik, palada oso efektiboa lortu dugula iruditzen zait. Arraun egiteko modu hori, ordea, oso exijentea da teknikoki; alegia, gidoi jakin batetik ez ateratzera behartzen du estropalaria. Teknika horrek errendimendu ikaragarria ematen du uretan, arraunketa mantenduz gero; aldiz, arraunketa galtzen bada, taldea



nahikoa salduta geratzen da. Zarauzko estropadan gertatu zena da horren adibide garbiena. Ikuspegi teknikotik, gehiegitan atera gara gidoitik arraunketari dagokionean.

Zerk eraman dezake arraunlaria arraunketa galtzera?

Hor dago koxka. Neurtu ezin diren faktore asko daude: urduritasuna, antsietatea... Ligako lehen estropada ez zen ona izan guretat, eta psikologikoki ez genuen ondo kudeatu emaitza. Hurrengo asteetan horren ondorioak jasan genituen, ia uda osoa baldintzatzeraino. Aipatu bezala, arraunlarien maila indibiduala ikaragarria izan da aurtun, baina estropadetan ez da esperotako errendimendua eman.

Errotazioek zein eragin izan dute?

Talde izaera aldetik, ez gara indartsu egon. Ligaren bigarren asterako ziurgabetasuna antzeman zitekeen barruan. Hor sartzen da nire ardura. Aurtun oso garesti egon da tripulazioan sartzea, eta kirolari batentzat, egoera jakin batzuetan zaila gerta daiteke aldaketak ondo kudeatzea. Agian, talde bezala ez dugu nahikoa kohesio izan, eta horretan ni izan naiteke asmatu ez duena.

Datorren denboraldian Orion izango al zara?

Oraindik urtebeteko kontratua dut, eta klubak hala nahi badu, hemen izango naiz beste urtebetez. Noski, zuzendaritzaz gain, arraunlarien iritzia ere aldekoa izan beharko du horretarako.



Euskadiko Arraun Surf Txapelketa, urriaren 6an Orion

Egunean zehar egingo diren ekimenez gain, iluntze aldera kontzertuak emango dituzte El Txef-a DJak, eta Madeleine eta Voltaia musika taldeek

Urriaren 6an, larunbatean, Euskadiko arraun surf zirkuituko finala jokatu da Orion, eta asteazkenean aurkeztu zuten Arraunetxan kirola eta kultura uztartuko dituen ekimena. Gipuzkoako Surf Federazioko presidente Maialen Saezek azaldu duenez, iaz Orion jokatu zen SUP jardunaldiak izan zuen arrakasta ikusita, aurtien errepikatzea erabaki dute. Horrez gain, nabarmendu du Udalarekin sinatutako hitzarmenari esker, Gipuzkoako Surf Selekzioak Arraunetxan egiten dituela teknifikazio saioak; *iruditu zaigu azpiegitura ezin hobekak dituela Oriok maila horretako txapelketaren eszenatoki izateko. Ildo horretan, Orioko Udalarari eskerrak eman nahi dizkiogu uneoro Gipuzkoako Surf Federazioarekin erakusten duen prestutasunagatik.*

Euskadiko SUP zirkuituko finalean kategoria guztiek parte hartuko dute: 14 oineko taularekin gizonezkoek eta emakumezkoek, baita gazte mailako surflariak, kadeteak, infantilek eta alebinek. Gainera, lasterketa herrikoia ere egingo dute, eta arraun surfean ibiltzen diren oriotarrak eta inguruko herritarrak bertan parte hartzea gonbidatzen dituzte.

Txapelketak bat egingo du Federarte Euskalsurf Kultura ekimenarekin, Orioko zenbait eragilek parte hartuz, tartean Arkupe merkatari elkarteak.

Egunean zehar egingo diren ekimenez gain, iluntzerako musika jaialdi garrantzitsua antolatu du Gipuzkoako Surf Federazioak. Alde batetik, nazioarte mailako El Txef-a DJa izango da kartelaren burua, eta Katapultatour-en eskutik Madeleine eta Voltaia musika taldeek kontzertua eskainiko dute. Gauean DJ saioak izango dira herriko hainbat tabernetan.

“Pertsonaren hazkuntza eta bizi kalitatea hobetzea dira gure xedeak”

Karmele Garmendia eta Amaia Gozategi

Mandalara Kultur taldeko kideak



mandalara taldea

Mandalara Kultur Taldea 2006 urtean sortu zen, pertsonen hazkuntza pertsonalean laguntza eskaintzeko elkarte modura. Urte hauetan guztietan, makina bat ekitaldi egin dituzte, bizitzako esparru desberdinei aurre nola egin eta norbanakoaren garapenerako tresnak erakutsiz.



Ikasturte berrirako Mandalarako lan taldea. KARKARA

Zer dela eta sortu zen Mandalara?

Karmele Garmendia. Ez genuen helburu zehatz bat elkarte sortzean. Nire kasuan, teknika batzuk barneratzeko kanpora joan behar nuen ikastera. Finean, Mandalara sortu zen herritarrei lana errazteko; herrian zerbitzu hori eskaini zezakeen elkarte bat egotea aproposa iruditu zitzaigun.

Zehazki, zein teknika mota?

K.G. Une horretan mandalak eta meditazioa lantzen genituen. Neronek erakusten nuen mandalak margotzen; lehen ez zituen inork ezagutzen, orain leku guztietan daude. Ahoz ahokoarekin taldea zabaltzen joan zen eta teknika zein esparru berriak jorratzen hasi ginen: astrologia, tarota, *chikunga*... ondo-

ren yoga ekarri genuen gurera.

Horiez gain, sorreratik hainbat ekin-tza sustatu dituzue.

Amaia Gozategi. Bai, denetarik egin dugu: hitzaldiak, solasaldiak, tailerrak.. Azpimarratu nahi dugu irekita gaudela herritarren proposamenak entzuteran, eta horiek abian jartzera. Ekarpinak beti dira ongietorriak.

Elkartearen sorkuntzatik, aldaketarik eman da Mandalاران?

A.G. Elkartearen jendearengana iritsi da, eta pertsona askok jotzen du gugana. Pertsonaren hazkuntza eta bizi kalitatea hobetzea dira gure helburuak, eta xede horiek betetzeko hainbat gai uztartzen ditugu: heriotza, dolua, elikadura, erlaxazio teknikak... gizakia bere osotasunean

(holistikoki) lantzeko, hots, fisikoki, emozionalki eta espirituaiki.

Asteroko ikastaroak finkoak dira, ezta?

A.G eta K.G. Astero ematen ditugunak dira: helduentzat eta haurdun daudentzat yoga eta *chikunga*. Horrez gain, hilean zenbait ekintza antolatzen ditugu, hala nola, poesia eta sorkuntza tailerra, eta intuizio zein energia saioak. Gure xedea da norbanako bakoitzak bere burua kudeatzeko tresnak erraztea.

Mandalara Jardunaldiak: 5 ekitaldi ireki, doan

Urriaren 26tik 28ra

•26, ostirala

19:00: Toti Martinez de Lezea eta Emilio Arias (trobadorea) 'Beste Santiago bidea'.

•27, larunbata

11:00: Arantxi del Rio 'Ongi jaten ikasten'.
17:00: Vicent Guillem doktorea, 'Estresaren eta depresioaren eragina osasunean'.

•28, igandea

11:00: M^o Carmen Astigarraga: 'Gurekin bizi diren animaliak, garenaren isla'.
17:00: Iñaki Carretero, ipuin kontalaria familiartean.

***Ekitaldi guztiak Orioko Arraunetxan egingo dira. Herritarrei irekiak eta doakoak dira denak.**

Mandalara Kultur Taldea

Antxiola 15 Behea, 20810 Orío, Tel. 648 48 74 89, mandalarataldea@gmail.com

Eman izena Euskaraldian parte hartzeko!



Dagoeneko eman daiteke izena Euskaraldiaren barruko '11 egun euskaraz' ekimenean parte hartzeko.

Orion izena eman nahi duenak bi aukera dauzka:

Online egitea, <http://izenematea.euskaraldia.eus/webgunean>. Galdetegi labur bat bete behar da. Bi minutu ere ez dira behar dena betetzeko.

Orio.eus web atarian, Euskaraldiaren atalean, deskargatu daitekeen fitxa bete eta herriko bost toki hauetan jarritako kutxatan utzi (fitxa bost toki horietan ere izango da eskuragarri):

- Kultur etxea
- Zaragueta eskola
- Herri Ikastola
- Maria Maestra haurreskola
- Kiroldegia

Zer da Euskaraldia?

Euskaraldia Euskal Herri osoan egingo da azaroaren 23tik abenduaren 3ra. Helburua da 11 egun horietan ariketa kolektibo handi bat egitea, euskararen erabilera areagotzeko, premisa nagusi honetatik abiatuta: euskaldunak beti euskaraz egingo dio euskaldunari eta euskara ulertzen duenari. Euskaraldian parte hartzeko, izena eman behar da alde zuretik, ahobizi gisa ala belarriprest gisa.

Elkarteen inplikazioa

Orion Euskaraldia antolatzen ari den lantaldeak ahalgin berezia egingo du herriko elkarteengana iristeko, haiek ere Euskaraldian parte hartzea bultzatu dezaten bere kideen artean. Elkarteen papera ezinbestekoa izango da parte-hartze masiboa lortzeko eta, horregatik, lantaldeko kideek banan-banan joko dute berengana, babesa eta laguntza eskatzeko.

Zer egin behar dute elkarteek?

Herriko elkarteei honako hau eskatuko die Euskaraldiaren lantaldeak izen-emateari begira:

Elkarteko kide bat edo batzuk izendatzea ordubeteko bilera bat egiteko, ondo ulertzeko zer den Euskaraldia eta zer egingo den azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean. Biler horiek egun eta ordu hauetan izango dira: urriaren 4an, 19:00etan eta urriaren 6an, 11:00etan

Elkarteko hamalau lagun 'fitxatu', publikoki adierazi dezaten Euskaraldian parte hartuko dutela, ahobizi edo belarriprest gisa.

Hamalau horien izenak publiko egin, eta elkarteko kideak animatu berek ere izena eman dezaten.

Modu paraleloan informazioa banatu elkarteko kideen artean, garbi azaltzeko zer den Euskaraldia, zer den ahobizia, zer belarripresta... eta, beharrezko bada, prestakuntza-saio labur bat antolatu elkarteko kide eta ingurukoentzat.



EUSKARAZ

2018

GAZTE

LITERATUR LEHIAKETA

- 1 'Euskaraz Gazte' literatur lehiaketaren helburua idazteko zaletasuna suspertzea da Orioko eta Aiako gazte-jendearen artean.
- 2 Lehiaketara aurkezten diren lanak euskaraz idatziak izango dira.
- 3 Lanak jatorrizkoak eta inon argitaratu gabeak izango dira. Ez da onartuko beste lehiaketaren batean saria jaso duen lanik eta, ezta ere, beste hizkuntzaren batean idatzi eta lehiaketarako euskaratutakorik.
- 4 Lehiaketan parte hartzeko, oriotarra edo aiarra izan behar da edo, bestela, Orion edo Aian bizi, eta 16 urte beteta izan behar dira.
- 5 Lanen luzera librea izango da.
- 6 Epaimahaiak gaiaren gertutasuna baloratuko du.
- 7 Lehiaketak bi atal izango ditu: ipuina eta bertsoa (edo olerkia).
- 8 Gaia librea izango da.
- 9 Lanak aurkezteko era:
Lanak, onartua izateko, titulua besterik ez du izango agerian. Idazlearen izena ezin izango da inon aipatu. Lanarekin batera gutun-azal itxi bat aurkeztu beharko da, barruan egilearen datuak jasoko dituen eta kanpoan bere lanaren titulua besterik agertuko ez duena.
Adierazi beharreko datuak: egilearen izen-deiturak, adina, helbide elektronikoa eta telefona.
- 10 Pertsona batek ezin dezake sari bat baino gehiago jaso atal bakoitzean.
- 11 Sariak hauek izango dira:
Ipuinen atala
1. saria: 300 euro
2. saria: 200 euro
3. saria: 150 euro
Bi accessit, bakoitza 100 eurokoa
Bertso edo olerkien atala
1. saria: 300 euro
2. saria: 200 euro
3. saria: 150 euro
Bi accessit, bakoitza 100 eurokoa
- 12 Epaimahaia. Epaimahaia Orioko Udaleko euskara teknikariak, Aiako kultur teknikariak eta KARKARA aldizkariko kide batek osatuko dute.
Epaimahaiak hutsik utz ditzake sariak.
- 13 Lanak aurkezteko tokia eta epea.
Lanak Orioko Udaleko Euskara Zerbitzuan edo Aiako kultur etxean aurkeztuko dira.
2018ko azaroaren 16a izango da horretarako azken eguna.
- 14 Antolatzaileek berea izango dute saritutako lanak argitaratzeko eskubidea.
Gainontzeko lanak itzuli egingo zaizkio eskatzen dituenari.



Euskaraz
bizi-bizi





"Galdu edo irabazi, horia nagusi!"

Aurtengo Kontxako estropadetako lehen igandean, Orioko traine-ruek ez zuten egunik onena izan, eta ondorioz, banderak irabazteko aukera asko galdu zituzten. Hala ere, Orioko herritar asko juntatu zen Donostian bigarren igandean, eta estropalariek zaleen babes handia jaso zuten. Josu Indo arraunlariak estropada amaitu zenean adierazi bezala, "galdu edo irabazi, horia nagusi!".

KARKARAK

30 urte

KARKARA aldizkariak 30 urte beteko ditu 2019ko ekainean. Urteurrena ondo ospatzeko, 2018-2019 ikasturterako hainbat egitasmo ditugu buruan. Komunikazio zerbitzu integral moduan, aurrera begira ditugun proiektu eta erronkak gauzatzeko Karkararen oinarria sendotzea da helburua.



Ainara Lasa, Karkarako kudeatzailea, eta Rikardo Uzkudun, presidentea. KARKARA

KARKARA

KARKARA 1989ko San Pedro jaietan sortu zen herritar talde baten inizatibari esker. Aldizkaria euskararen normalizazioan laguntzeko helburu nagusiarekin jaio zen. Euskaldun asko eta asko ez zeuden ohituta euskaraz irakurtzera, eta langa hura haustea zen elkar-tearen epe motzeko xedea.

Aiara ere egin genuen salto, 1994ko maiatzean, eta bi herriek berez dituzten loturei zubi bat gehiago eskaintzea izan da gure ahalegina.

Informazio zerbitzu profesionala

Dena den, bistan da gaur egungo KARKARAK bestelako funtzio nagusi bat ere baduela: Bi herrietako informazioa ematea, kalitatezkoa, azkar eta txukun. Horretarako lan taldea handituz joan da urterik urtera, batez ere, webgu-

nea zabaldu eta egunero elikatzen hasi ginenetik.

Beste herrietako elkarteekin batera azken urteetako kazetaritzak bizi izan dituen aldaketetara ahal den azkarraren egokitzen saiatu gara, eta horretarako ezinbestekoa izan da talde profesionala osatzea.

Egun, hiru kazetarik eta diseinatzaile batek osatzen dute taldea, eurak dira egunero-egunero zerbitzu hori ematen digutenak. KARKARAKo lan taldea borondatezko beste talde batek ere osatzen du, hauek erabakia nagusiak hartu eta erredakzioan laguntzeaz arduratzen dira.

Hala eta guztiz ere, garbi daukagu urte hauetan guztietan KARKARAK laguntzaile, iragarle eta erakunderik gabe ez lukeela biderik egingo. Zuei eskerrak, KARKARAK, ia 30 urteren ostean, inguruko erreferentziatzko heldabidea izaten jarraitzen du. Hilean behin 40 orrialdeko aldizkaria banatzen da Aiako eta Orioko etxe guztietan,

EGUN OSOKO IRTEERA OTEIZA MUSEOA

+ Iruñea

URRIAK 20, LARUNBATA

- 10:00** Irteera bus geltokitik
11:15 Bisita gidatua Altuzako Oteiza museoa
14:30 Bazkaria Iruñeko Aldapa elkartearekin
18:00 Buelta Iruñetik Oriora

IZENA-EMATEA

Izena urriaren 15a baino lehen eman behar da telefonoz edo emailaz:
 943 93 15 27 / 688 817 305
 eta karkara@karkara.eus
 (50 plaza bete arte)

PREZIOAK (dena barne)

Karkarako laguntzaileak: 35€
 Laguntzaile ez direnak: 45€
 65-urteko gorakoak eta adin txikiak: 41€
 Ibañak eta 65 urte azpiko emazteak: 43€



eta Karkara.eus webgunea urteko egun guztietan dago martxan irakurleen zerbitzura.

Datuen arabera, 2018ko ekainean inoizko daturik onenak izan genituen gainera, 27.000 bisita.

31 eskutik

Ordea, aurrera begira proiektu eta erronka latzak ditugu mahai-gainean. Eskualdeko komunikazio proiektu berria, aldizkariaren diseinu berria, lokal handiagoa (txikia geratzen ari zaigu)... apustu sendoa eskatzen duten erronkak dira, eta gu prest gaude horiei heltzeko.

Hala eta guztiz ere, horretarako ezinbestekoa ikusten dugu KARKARAren oinarri sozial eta ekonomikoa handitzea. Harpidetza kanpaina bat martxan jartzera goaz, lehendik ditugun laguntzaileei berriak gehitzeko. Seguru gaude gainera, aiar eta oriotar asko dagoela prest urtean

36€ ematera proiektu horiek gauzatzeko.

Baina eskatzeaz gain, ematera ere bagatoz. Ikasturte honetan, zenbait kultur ekimen antolatuko ditugu, urteurrena ondo ospatzeko. Lehendabizikoa, hil honetan bertan. Oteiza jaio zela 110 urte beteko direla aprobeztatuz, Oteiza astea antolatu dugu Orioko Udalarekin batera. Oskar Alegria eta Bernardo Atxaga etorriko dira Oteizaz hitz egitera, herriko haurrek omenaldi txiki bat egingo diote artistari, eta Altuzako Oteiza museora joateko egun pasa eder bat antolatu dugu.

Eta, xehetasunetan sartu ezin dugun arren, eskuartean ere baditugu musikarekin eta kirolarekin zerikusia duten hainbat jarduera. Horien bidez, ikasturte honetan KARKARA eta irakurleen arteko harremana indartzea dugu helburu, 30 urte betetzeaz gain, 31.ena eskutik hasi dezagun.

KOLON TXIKI
 utzarizagis
 jucar.com



Herriko Enparantza, 4
 ORIO
 Tel. 943 83 00 44

Lizaso
 dekorazioa



Tf:
943 83 07 84

Faxa:
943 24 87 15

Eusko Gudari, 48

OREKA
FISIOTERAPIA



Tendinitisak
Lumbalgiak
Artrrosia
Zefaleak

Manaje terapeutikoa,
 bentonak, alapuntura,
 eskuko terapia,
 osteopatia

943 13 35 37
 Aritxaga kalea, 11 behea



kutixi
 kafetegia
 GOSARI GONAK

Aritxaga 5, 20810 Orio
 Tf. 943 13 13 17



HEARTZEA
PATXI OLIDEN
 HERRITZEA

Hemengo haragia.
 Etxeko produktuak: tripaki, odolki,
 txekora, txorizo, kokotak...

PATXI OLIDEN

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10



ELEKTRIZITATEA
Ande Espoite

943 831 774
 600 856 728

anderexpoelektrizitatea@gmail.com

PERTSIANAK
 A K O M A I Z



Aluminio, PVC
 Venezianak
 Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27



ORIA
 hertz klinika

Arantzale kalea, 63 behea
 20810 ORIO
 Tel.: 943 83 36 45

Orio Hertz Klinikak **ORTODONTZIA**
 zerbitzu berria jarri du martian.
 Prebentzioa ezinbestekoa dela
 jakinda, harfu aurreratuarekin siri
 dardetuekin arazotek.



Seguros
Bilbao

Tel: 943 111 600
 688 714 869

Endaia Enparantza, 1
 20810 Orio (Gipuzkoa)

Santi Barranco
 Orioko ordezkaria

e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

2019
 EZKONTZA AGENDA IXTEN
 Deskontuak 2018 hitzartzeagaitik
 haurre edo gero erreportatua
DOAIN,
 Ez galdu aukera



ROSANA
 -ARGAZKI ESTUDIOA-
 leonmarrut@gmail.com tlf: 943 83 91 43

azkue
karrozeria



Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com

Sinergia | fisioterapia & ikerkuntza

943 13 05 77
 685 71 85 95

· Lesioak: bihurturak, tendinitisak, zoinfiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkor hezurreko arazoak, arnas galkotasunak haur eta heduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupezioak.

· Tratamenduak: terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesiotaping-a, pilates, abdominalefako gimnasia hipopresioaba (GAH), REDCORD.

Facebook and Instagram icons.

Irati Ordoña 1, Beñe - Orio
 sinergiafisioterapia.com



Ura balego, ardoa edango, eta urik ez dagoelako ura edan behar.

Urik ez eta ura edan behar (I)

Oroimenaren kutxa

Bi euskaltzaleren arteko eztabaidaren lekuko izan nintzen lehengo batean. Bata ezkor samar ageri zen, kezkatuta: *Orion lehen bai, euskaraz bagenuen gatza eta piperra; orain, berriz, gazte batzuek kinto afarirako eta parrandarako deia egin nahi eta, hitzak errimatuz grazia pixka bat izateko, erdararen premia sentitzen dute: 'Y si la vista no me engaña, se avecina gran castaña', eta eskolan euskaraz ikasitakoak izango ziren.*

Bestea baikorragoa zen: *Gutxienez hitzekin jolastu zaileak dituk, hori euskaraz ondo egiten badakitela, saiatuz gero, 'ondo janda ta hobeto edanda, sekulako parranda'. Horixe diagu guk lana, eskolekin batera.*

Baina ezkorra ez zegoen horren erraz etsitzeko: *Eta aliron batean, plazako balkoi batean ba al dakik zer jarri zuten? 'Mar gruesa o mar bella, a Orio no le hace mella'. Zer iruditzen zaik? Alirona ere nahiago ditek erderaz kantatu, 'oriotarra campeón', nahiz eta euskal bertsoia ere asmatuta dagoen.*

Optimista ez zen zapuztu, hala ere: *Kexa alferrikakoa dek, horrek ez dik balio ezertarako. Gazteei aukerak eman behar zizkieagu, beste modurik ez zegok; hitzak falta zaizkiek gazteei, esamoldeak, bizitasuna, egia da bai hori galdu dutela gazte batzuek euskaraz, eta hori berreskuratu beharra zegok.*

Anjel Lertxundik etxerako lana jarri zigun 2014ko ekainean, Karkararen 25. urteurrenean: herriko hiztegia osatzen hasteko. Anjeli berari entzun genion bere emazteak zer hitz esaten dizkion, txantxetan, oriotarron hizkera imitatzeko: *Orioko karamelok merkek eta goxok, jateko mokok.*

Ibon Gaztañazpi abiatu zen zeregin horretan: Orioko arraun munduko hitzak bildu zituen, eta hitzaldi batean eman zuen haien berri, orain bost bat urte, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan. Txosten batean jasota dauzka. 'Biraorikan ez duen hizketa garbia' dio aspaldiko euskal kantuz egun batek. Gure artean zabalduta dago euskaraz ez dagoela maldiziorik edo biraorik. Baina Ibonek entzuten zituen, ba, galantak, bere arraun saioetan, Kortaren garaiak ziren haiek: *eriya, putakumia (hau gehien), han-*

kamehea, besamotza, eukalitia, arto txokorra, zimaurre, paketeko oilaskoa, kondoya, zapua, artagaya, elbarriya, hontza, barrabil zorrua, arbiya, putitxeko palankanerua... Hizkeraren bizitasunaren adibide diren esaldi xeble askoak ere jaso zituen: *Jesukristok gurutzen baño aurpegi txarragoa dakak! Nahiago nitek barrabiletako zainak lehertuko balitzaizkik! Zapuak baño gehio jango huan! Korrokoiaeren olatuakin ere balantza egiten diagu! Ia motel! Abante egiten ez badek ere, ziarik ez egin!*

Ondo jositako euskal hitz ederrak izan zituen Iñigo Fernandezek ere 'Surfa eta paradisua' bere lehen liburuan. Haren bitartez, surfaren mundua eta munduko surfa azaldu zizkigun, idazkera aberats eta dotorean.

Irailan Ibai Esoainek Zarauzko 34. Basarri Saria irabazi du. Zortzi bertso dotoretan neguan anguletan dabiltzan giroa azaltzen digu. Anguletakoa Orion oso sustraituta dagoen jarduera da, aspaldikoa. Ibaik arrantza mota horretako hitzak ekarri ditu bertsootara: *baya, lohia, zira, txitxarea, arrastan, polainean, amuka, aingura, aingira...*; baina gainera ederki josita, eta hitzen bigarren esanahiarekin hitz-jolasak eginez.

Eusko Jaurlaritzako Kirol zuzendari Jon Redondok borobildu du proposamenen zerrenda: Euskalkirolaria programaren bidez, zera aldarrikatu du: kirol bakoitzeko terminologia jasotzeko eta teknologia berrien sare sozialetan zabaltzeko, erabil daitezten.

Anjelek eskatutako hiztegia ez dugu orain osatuko. Agian, datorren urtean, Karkararen 30. urteurrenaren aitzakiatan egin genezake ahalegina. Hala ere, ni nago hitzak bai, baina batez ere hitzekin jolasteko eta gozatzeko modua behar dutela gazteek, hizkuntzaren plazer estetiko. Egin dezagun horretarako bidea. Badirudi asko gabiltzala norabide berean. Badugu nondik abiatu.

Karkararen hurrengo zenbakirako asmakizun bat proposatuko dizuet, ea nork asmatzen duen: "Ura balego, ardoa edango, eta urik ez dagoelako ura edan behar". Zer egoeratan esaten da hori Orion? Ea zer kolore hartzen diozuen asmakizunari! Pista bat: arrantzaleen girokoa da.

“Politika lan nekeza da, baina asko ikasteko aukera eman dit”

Emeterio Iribar

EH Bilduko zinegotzia

Lehengo legealdian agintean egon ostean, oraingoan oposizioan ari dira lanean Emeterio Iribar eta bere taldea. EH Bilduko zinegotziaren hitzetan, ekarpen eta akordio ugari lortu dituzte Orain eta PSE-EE alderdiekin, Udalaren eta herritarren mesederako.

KARKARA

Emeterio Iribarrek urte asko daramatza herri politikan sartuta. Urte hauetan guztietan asko ikasi duela dio, eta ikasketa hori du lanean jarraitzeko motibazio nagusia: herriaren onurarako lan egiteaz gain, pertsona gisa hazten joatea. Elkarrizketan kritikoa azaldu da Jose Anjel Zaldua alkateak eta EAJk legealdi honetan egindakoarekin.

Zer nabarmenduko zenuke azken legealdiaz?

EAJren Udal Gobernu honen noraeza eta ambizio falta azpimarratuko nituzke lehenik. Garrantzizko gaietan jarrera itxia erakutsi dute: aurrekontuak, Plan Orokorra, gizarte politikak... EAJk ez du akordioetara iristeko borondaterik azaldu.

Jarrera honen aurrean, oposizioko alderdiok (EH Bildu, Orain, PSE-EE) lanean jarraitu dugu, eta alderdiak alboan lagata, adostasunetara iritsi gara. Aurrekontuak eta Plan Orokorra dira horren adibide.

Oposizioan urte asko eman ostean, lehengo agintaldian

alkatetza izan zenuten. Autokritika eginez, zertan egin zenuten huts? Eta asmatu?

Aurreko agintaldian, Orain taldearekin batera egin genuen lana zintzoa eta zorrotza izan zela esango nuke. Arraunetxeko lanak txukun amaitu genituen, Kanpinean bungalowetan inbertsio handia egitea adostu genuen, eta ondorengo emaitzek asmatu genuela erakutsi dute, hainbat gaietan parte hartzea sustatzeko aholku mahaiak eratu ziren... Udal Gobernuan berriak izanik, gauza on dezente egin genituela uste dut. Euskal epaitegiak argitaratutako txostenen arabera, EH Bilduk Orioko Udalean egindako kudeaketa oso ona izan zen.

Noski, huts ere egingo genuen gauza batzuetan, baina zaila egiten zait zerbait aipagarria nabarmentzea.

Dirudiena baino zailagoa egin al zitzaizuen gobernatzea?

Gure agintaldiaren aurretik, EAJ alderdiak hogeitaz izan zuen Orioko Udaleko alkatetza. Gu gauzak egiteko





beste eredu bat aplikatzen saiatu ginen, EAJren ordura arteko lan ildotik bereiziz. Herritarrengandik gertuago egoten saiatu ginen.

Krisi ekonomikoak asko baldintzatu zuen gure agintaldia. Udalak diru sarrera gutxiago izan arren, zergak ahalik eta gutxien igo genituen, eta herriko eragileek ez zuten diru-laguntzetan murrizketarik jasan. Urte zailak izan arren, asko ikasi genuen.

Nola definituko zenuke legealdi honetan egiten ari zareten oposizioa?

Hitz batean esanda, *arduratsua* bezala definituko nuke. Proposamenak egitea izan da gure jardun nagusia; horretaz gain, herritarrengandik jasotako iradokizun eta kekek Udalera eramaten eta bideratzen ere saiatu gara.

Zein dira EH Bilduren lehentasunak eta lerro estrategikoak?

Gizarte politikak indartzea da gure lehentasuna. Gai sozialei ez zaie behar besteko arreta jartzen Udalean, eta guretzat garrantzia handia dute.

Bestalde, Plan Orokorra behar bezala egiteak ere lehentasunezko gaia behar luke; azken finean, dokumentu horretan zehaztuko da Orioren etorkizuna. EAJk gai honekiko izan duen arduragabekeriaren ondorioz, hiru urteko atzerapena dute plana osatzeko lanek.

Ingurumen kontuei dagokionean, itsasadarra eta Motondo guttiz ahaztu dira azken hiru urtetan. Aiako eta Usurbilgo Udalekin elkarlana sustatzen saiatu gara

“Gizarte politikak indartzeak garrantzia berezia du guretzat, eta Udalean ez dute lehentasunik.”



behin baino gehiagotan, baina ez da urrats bat ere eman.

Kofradiak eta frontoi eremuak ere berehalako irtenbidea eskatzen dute, eta parke estali baten beharra ere nahiko nuke azpimarratu.

Arlo sozioekonomikoari dagokionean, Merkataritza, Arrantza, Industria eta Nekazaritza batzorde bat dugu Udalean, baina legealdi honetan geldirik egon da.

PSE-EEren botoarekin egin zen alkate Jose Anjel Zaldua. Agintaldian zehar, askotan egin duzue bat Ana Priede zinegotzi sozialistarekin.

Hauteskundeak eta gero, Anak konfiantza botoa eman zion boto gehien jaso zituen alderdiari. Legealdia hasi eta gutxira, ordea, konfiantza galdu zuen jeltzaleengan, eta oposizioa pasa zen. Gerora, berarekin adostasunetara iristeko gai izan gara arlo askotan.

Siglen gaintetik proiektuak lehenetsiz, bi alderdiak ezkerrekoak izateak akordioak lortzea erraztu du.

Nahikoa lan ez egitea leporatu izan diozue sarri Udal Gobernuari, oposiziotik. Zehaztu daiteke lan falta hori zer den?

Hauteskundeetara aurkeztu zirenean, gaitasun handiko taldea zutela nabarmendu zuten jeltzaleek. Hainbat proiektu egiteko inizatiba erakutsi zuten; Aizperroko industrialdea eta adineko pertsonentzako egoitza, besteak beste.

Beren ekintzek, ordea, ez dute halakorik erakutsi, eta horren ondorioz gauza asko atzeratu dira: lur azpiko

zaborrontzien egokitzapena, Plan Orokorra osatzea, Udaleko lanpostuen oposizioak, herriko plazako lanak...

EAJren lidergo faltaren ondorioz, beren barne arazoak agerian geratu dira: koordinazio eza, komunikazio falta, elkarri ardura falta leporatzea...

Aurrekontuetan adostutako inbertsioak behar beste ez gauzatzea ere leporatu diozue Udal Gobernuari.

Bai, hori diote datuek. 2016 eta 2017 urteetan inbertsioek %57-58ko exekuzioa izan zuten. Adostasunetara iritsi, horiek garatzeko dirua izan, eta lanak ez aurrera eramatea lotsagarria dela iruditzen zaigu.

Orioko EH Bilduren kasuan, goitik etorritako aginduek zein puntutaraino baldintzatzen dute zuen erabaki ahalmena?

Gure kasuan, goitik babesa jasotzen dugu, eta aholkatu egiten gaituzte. Lanerako garaian, ez gaituzte baldintzatzen, eta bitartekoak eskaintzen dizkigute behar denean, formazio saioak kasu. Halakoen bidez, beste herrietan egiten denaren lehen eskuko informazioa jasotzen dugu.

HIRIGINTZA

Obra handia egingo da herriko plazan. Beharrezkoa al da herriarentzat?

Bai, gure ustez plazak obra honen premia du. Herriaren gune horretan ur zikinak eta euri urak bereizteko daude, eta oinarrizko instalakuntza horiek berrituko dira lan hauen bidez. Noski, plazaren zati bat peatonalizatu

egingo da, eta autoen irteerari ere konponbidea jarriko zaio, bi noranzkoak moilatik bideratuz. Herritarren bizi kalitatea hobetzen lagunduko du obra honek.

EA Jren lan faltaren ondorioz, lan hauek atzeratu izana salatu duzue sarritan.

Bai, koordinazio falta handia egon da prozesuan zehar Udal Gobernuaren eta portu zuzendaritzaren artean. Bietan agintea EA Jren esku dagoela jakinik, ulergaitza egiten zaigu lanak hainbeste atzeratu izana.

Noiz hasiko dira plazako lanak?

Alkateak duela hilabete batzuk azaldu zuenaren arabera, obrak irailean hastekotan ziren; guri informazioa tantaka iristen zaigu, baina dakigunaren arabera, obrak zein enpresak egin behar dituen erabakitzeke lehiaketa ez da egin oraindik. Beraz, hilabete batzuk pasa bitartean ez dira hasiko lanak.

Eta lanek iraun bitartean, plaza zenbat hilabetez itxiko zaie autoei?

Udal teknikariak emandako informazioaren arabera, lau hilabete inguru emango ditu plazak autoentzat itxita. Hala ere, halako lanetan beti suertatzen dira ezustekoak, eta litekeena da epeak luzatzea.

Dikerako, Kofradiarako eta Kosta tailer ingururako plana aurkeztu zenuten 2017ko azaroan, Garate familiarekin eta Kofradiako ordezkariekin batera. Nola dago gaia gaur egun?

EA Jk urteak daramatza Kofradiako arazoa haiek konponduko dutela aginduz; hitza betetzeko ezintasuna ikusi zutenean, bizkarra eman zioten arazoari.

Honen aurrean, eskertzekoa iruditzen zaigu Dikeko jabeez eta Kofradiak jarritako borondatea. Irtenbide errealak bilatzeko ahalegin horretan, oposizioko alderdien babesa izan dute hasieratik. Dikeko jabegoaren, Kofradiaren eta Udalaren arteko hitzarmena lortzea da arazoari irtenbidea bilatzeko giltza. Berandu bada ere, EA J ere sartu da tartean, eta gauzak ondo badoaz, Urriko plenoan onartu beharko genuke aipaturiko akordioa.

PSE-EEK herrian alokairu sozialerako etxebizitzak egiteko proposamena aurkeztu zuen Udalbatzarrean, eta onartu

egin zen. Nola dago gaia gaur egun?

Gure alderdiak lehen momentutik babestu du Anaren proposamena, eta proiektua ahalik eta azkarren gauzatzeari gustatuko litzaiguke. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailak proiektuaren zirriborro bat aurkeztu behar digu, eta hori jaso zain gaude. Hori aztertutakoan, egin edo ez bozkatzea izango da hurrengo urratsa.

Nork du proiektua gauzatzeko giltza?

Etxebizitza horiek egin nahi diren lurak Udalarenak direnez, Udal plenoak.

Eta zertan dira Anibarko Portuko Udalaren lokaletan egin nahi diren alokairu sozialerako etxebizitzak?

Kasu honetan, eskuartean dugu proiektuaren zirriborroa. Batzordetik pasa ondoren, udalbatzarretik pasa behar da.

Orion zenbat etxebizitza eraikiko dira datozen hamar urteetan?

Dike, frontoiko eremua eta Gureak-eko eraikin zaharra dira etxebizitzak egiteko begiz jota dauden guneak. Gehienez 370 etxebizitza berri aurreikusten ditut.

Zein fasetan dago Herri Antolamendurako Plan Orokorren osaketa?

Dikeko planaren akordioa itxi ostean, Plan Orokorren osaketak abiadura handiagoa hartzea espero dugu. Honi lotuta, mahai gainean baditugu beste hainbat gai; frontoi berriaren kokalekua eta Erribera kalearen eta Bikamio-tako biribilgunearen arteko lotura, kasu.

TURISMOA-KOMERTZIOA

Azken uda honetan ere, behin behineko zuzendaria izan du Orioko Kanpinak. Uda aurretik oposizio azterketak egin zirenean, hautagai batek ere ez zuen gainditu proba. Zer gertatu zen?

Gu ez gara gai horretan adituak, eta ezin dut hori erantzun. Onartu behar dugu, ordea, prozesuan akats bat baino gehiago egin direla, eta ulergaitza egiten zaigu gaiak duen atzerapena. Udal Gobernu honen gaitasun maila erakusten duen beste adibide bat dugu hau.

Eta zer egingo duzue orain?

“EAJren barne arazoak agerian geratu dira legealdi honetan.”

“Datozen 10 urtetan, Orion gehienez 370 etxebizitza berri eraikitzea aurreikusten da.”

“Oraindik hilabete batzuk pasako dira plazak obrak hasterako, alkatetean kontrakoa esan arren.”

Ezin dugu ezer askorik egin, Udalean erantzukizunak eskatzea baino.

Kanpinak zifra onak eman ditu denboraldi honetan ere.

Jaso ditugun datuen arabera, aurtengo emaitzak lehengo urtekoen parekoak edo hobekiak izango dira. Bere fruituak ematen ari da lehengo legealdian Orainek eta EH Bilduk egindako apustua.

EH Bildurentzat, zein garrantzia du turismoak?

Orio, hein batean, turismotik bizi den herria da, eta gure alderdiarentzat garrantzia handia du alor honetan estrategia on bat garatzeak; gaur egun ez dago halakorik Udalean.

Inguruko herriek udan duten bisita kopurua ikusita, Oriok jasotzen al du nahikoa turista?

Ez zait iruditzen konparaketak egiteko laguntzen duenik, herri bakoitzak ezaugarri desberdinak dituelako. Orion uda garaian mantentzen dugun lasaitasuna luxua da, eta kanpotik etortzen direnek asko baloratzen dute hori. Oreka bilatu behar genuke, turista kopurua uda garaian pilatzea ekidinez, eta urte osoko eskaintza erakargarria landuz.

Arkuperen inizatibari segida emanez, asteburuetan autoei plaza ez ixtea erabaki zuen Udalak. Erabakiak hautsa harrotu zuen herrian, eta azkenean, ez zen indarrean jarri.

EAJk modu desegokian egindako prozesua izan zen hori. Aurreko legealdian, Topagune Berdearen proposamen batekin hartu zen asteburuetan plaza peatonalizatzeko erabakia, herritarren eta eragile ezberdinen hausnarketa askoren ostean.

Aurten hartutako erabakia, aldiz, eragile batek bakarrik bultzatu zuen, eta guk hori herritarrekin eztabaiatzea eskatu genuen lehen momentutik. Ez ziguten jaramonik egin.

Erabakiak haserrea eragin zuen herrian, eta herritar talde batek egindako lanari esker, hausnarketa prozesu bat ireki zen, inkesta baten bidez. Emaitzek argi laga zuten herritarren gehiengoaren nahia, eta azkenean, atzera bota zen erabakia.

Autokarabanen aparkalekuaren gaiak eztabaida handia piztu zuen iaz, Abaromendiko bizilagunekin egindako bileran. Nola dago gaia?

Sortutako iskanbilaren ostean, autokarabanentzat Kirol portu ondoko gunea egokitzea proposatu genuen. Orduetik hilabeteak pasa dira, aurrekontuetan ere bada partida bat horretarako gure inizatibari esker, eta laster dugu batzorde bat gaiari buruzko erabakiren bat hartzeko. EAJk gaia serio hartzea espero dugu, halako batean.

HEZKUNTZA

Orion nabari igo da etorkin kopurua azken urteetan. Udaletik zer egin daiteke herriko bi ikastetxeetako etorkin kopurua berdintzeko?

Hori ez da Udalaren eskumena, baina gaia gertuagotik jarraitu beharko genuke, lehen eskuko informazioa sarriago jasoz. Gai horrek lekua behar luke Hezkuntza eta Ongizate batzordean, baina urtean hiru bilera bakarrik



egiten dira, eta horrela oso zaila da gai hauei behar duten arreta eta denbora eskaintzea.

Udalak proiekturik ba al du etorkinei herrian integratzen laguntzeko?

Zoritxarrez, ez. Udala hankamotz dago Gizarte zerbitzuen alorrean; hori du egun ahulgunerik nabarmenena. Harrerarako langile bat behar da, eta bi urte daramatzagu jubilatuta beharko lukeen teknikari baten plaza bete nahian.

Nekagarria da, benetan, EAJ prozesu honetan erakusten ari den moteltasuna. Egoera hau izanik, zaila da herrian suertatzen diren beharrei aurre egitea.

KULTURA

LOS 40 jaialdiak polemika handia piztu zuen herrian.

Ekimenak alderdi guztien babesa izan zuen. Zerk bultzatzen zintuzten aldeko botoa ematera?

Jaialdia egin eta egun gutxira, autokritika testu bat argitaratu genuen. Udalean berriro halako ekimen bat antolatzeke aukera izango bagenu, erabakia herriko eragileen iritzia kontuan hartuz hartzea eskatuko genuke.

Aurreko legealdiarekin alderatuz, dezente mehetu da Udaleko kultur agenda; zergatik ez dira antolatzen, adibidez, harrera ona zuten ostiral iluntzeetako kontzertuak?

Beste ezeren aurretik, esparru horretan Imanol Urkizuk egiten duen lana goraiatu nahi nuke. Kontzertu haiek luxua ziren herritarrentzat, eta pena da legealdi honetan gutxiago antolatu izana; saio horiek jendea fidelizatu zuten, eta entzule ugari gerturatzen zen kultur etxera.

Agendaren mehetze hori ezin al da ekidin Udaleko kultur teknikariaren lanarekin? Bere zereginak ondo definituta al daude?

Teknikari baten prestutasunak lagun dezake horretan, baina, batik bat, zinegotzien lanak baldintzatzen du

“Udala hankamotz dago Gizarte Zerbitzuen saillean, eta guretzat, lehen-tasunezkoa da gai hori.”

kultur agenda.

Mutiozabal ontziola. Noiz jarriko da martxan?

Berehala hasiko dira lanak: ontziolaren barnealdea egokituko da, eta kanpoan pasabidea egingo zaio. Martxan jarri aurretik, ordea, Mutiozabalek izango duen funtzionamendua eta antolakuntza zehaztu behar dira. Oraingoz, Beñat Ibaietak izango du prozesu hori bideratzeko ardura. Udalarekin eta herritarrekin elkarlanean arituko da.

Ontziola irekitzen denean, Beñat bera izango al da arduraduna? Edo lanpostuak zehazteko deialdi publikoren bat egitea aurreikusten duzue?

Beñatek ontziola martxan jarri aurreko prozesua bideratuko du. Oraindik ontziolaren funtzionamendua zehaztu ez denez, zaila da han zenbat lanpostu beharko diren jakitea.

Noski, langileak kontratatu behar badira, deialdi publikoak egingo dira.

EUSKARA

Zein inplikazio izango duzue agintariok Euskaraldia ekimenean?

Egitasmoa erronka serioa da, eta hizkuntza inertziak aldatzeko balio behar du. Herri mugimenduan egongo da arrakastaren giltza.

Orion talde polita sortu da ekimenaren bueltan, eta gogoz ari dira dinamizazio lanetan. Politikariok protagonismoa herritarrei eman ezin inplikatzeko saiatu behar dugu.

Azken ikerketen arabera, Orioko kaleetan jaitsi egin da euskararen erabilera. Zein neurri har daitezke?

Gai honek ondorez eragiten dit: ohitu egin gara euskaldunon artean ere gaztelera lasai egitera, kalean iragarriak gaztelera hutsean idatzita ikusten ere bai... Garai

“Udaletxean euskararen dekalogoia dago horman jarrita, baina bulegoetan sarri entzuten da gaztelera.”



batean kezka eta mugimendu handiagoa antzematen zen esparru honetan, besteak beste, Euskal Herrian Euskaraz-ek egindako lanari esker.

Ordezkarri politikook ere kontzientzia handiagoa izan beharko genuke. Udaletxe sarreran euskararen dekalogoia dago horman jarrita, eta hango bulegoetan sarri entzuten dira teknikari eta zinegotzi euskaldunak gaztelera hizketan.

GALDERA PERTSONALAK

Urte asko daramatzazu herri politikan sartuta. Nola eusten zaio motibazioari?

Ikasteko gogoia da nire bulkada nagusia. Politika lan nekeza gerta daiteke sarri, baina pertsonen eta gai ezberdinen inguruan asko ikasteko aukera ematen du.

Erabaki serioak hartu behar direnean, adituekin bilatzeko aukera izaten dugu, eta hori oso aberasgarria dela iruditzen zait.

Alderdian ba al duzue erreleboa hartzeko prest dagoen gazte jenderik?

EH Bilduk oriotarrei eskaintzen diena interesgarria iruditzen zait, arlo ezberdinetan: kultura, gizarte politikak, hirigintza... Programa horiek gazteentzat erakargarriak direla sinistuta nago, eta konfiantza osoa dut hurrengo jenerazioetan.

Gazte jendea sartuz gero, emango al zenuke urrats bat atzera?

Bat ez, lau emango nituzke! kar kar kar Hala ere, edozer-tan laguntzeko prest egongo nintzateke.

Datozen hauteskundeetan alkatetzarako hautagai aurkeztuko al zara?

Ez, bada erreleboa emateko garaia. EH Bilduk etorkizunerako proiektu erakargarriak du, eta hori jende freskoak gauzatuko balu, askoz ere hobe.

Dagoeneko hasi gara datorren legealdirako gauzak prestatzen, eta talde orekatua sortzea gustatuko litzaidake, jende gaztearen eta esperientzia dutenen artean.

Oro har, altua da Orioko Udaleko zinegotzien batzordea. Zerk urrutiratzen ditu gazteak?

Ni 22 urterekin hasi nintzen lanean Lasarteko Michelin enpresan, eta han jubilatuko naiz. Gazteek ez dute egonkortasunik lan kontuetan, eta horrek zaildu egiten die bestelako ardurak hartzea.

Esker oneko lana al da zinegotzi izatea?

Jendearen hitz onak edo eskerrak jasotzearen zain egon gabe, norberaren barrura begira egin beharreko lana dela uste dut, kanpoko ezer espero gabe.

Pertsonak gara, eta denok izaten ditugu momentu on eta txarrak; hala ere, Udalean jende berekoiarekin lan egitea ere suertatzen da tarteka, eta ez da samurra izaten.

Hala ere, politikariak asko kritikatu dira orokorrean, sarri modu txarrean, zinegotzi gehienok lanean borondate onenarekin aritu arren. *Denak berdinak zarete* esaten digu jende askok, eta ez zait justua iruditzen.

Zerbait gehitu nahi al duzue?

Gizarte zerbitzuez eta pertsonen ongizateaz kontu bat gehitu nahiko nuke. Bi urte daramatzagu herriko pobrezari buruzko azterketa egitea proposatuz, gero beharrezko gizarte lanak egin ahal izateko. EH Bilduren ekimenez, 2017ko aurrekontuetan 12.000 euro jarri ziren azterketa hau egiteko, eta 2018a bukatzearen honetan jarriko du martxan gaia Udal Gobernuak. Bazen garaia.

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak S.L.



Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 943 13 28 93, 83 08 80, Mugikorra: 656 78 30 01, 656 78 29 92

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Pelotari 5, Orio
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra

GARMENDIA

HEZKUN AGENTZIA - AHOLKULARITZA - ASEDORIAK

Ibañ Ondo, 1
Tel: 943 834 466 - Fax: 943 132 941
informacion@garmendigestion.com

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)



KORTABERRI
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com **665 70 33 47**

LUXARBE
Igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnos: 943 83 59 00

Zaragueta
Herri Eskola Orio



telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezuntza.net

Maidor Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzaile 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODOLOGIA ZENTROA

TXUKUN
LORAZANTZA, S.L.

Tel. 660 332 756 · 679 428 851
txukunlorazantza@hotmail.com

Lorezaintza
Mendiko lanak
Indusketak
Itxiturak



MENDIZABAL
AROTZEGIA

Nearriko arneiariak eta igerlariak

943 831 175
645 708 491
mendizabal@arotzi.net

Aitzari bidea
Beti-Aia etxea
20810 Aia-Orio

urbide
Iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Birkaia Kalea, 4
20800 | Zarautz
943 890 069
urbideiturginak@gmail.com
www.urbide.es

Desatascos
LASTER



688 886 536



Supermerka 21-A · 20900 Zarautz · Alkatzenon 100 · 20810 Orio · Tel. 943 751 401
desatascos@desatascoslaster.com · www.desatascoslaster.com

IGLESIAS
SARRAILAGILEAK



24 ORDUKO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesias@arrailagileak.es
20810 Orio

- ATYAK INKITZEN DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATYAK IXTEKO MALDURKEN ALDAKETA
- KOMUNITATEENTZAKO ZERBITZUA

zkue



Tf: 943 130 438

zkue

ORIOKO HERRI IKASTOLA



“Agur gazi-goza”

M. Belen Arrieta

Irakaslea

LH4ko ikasleok gure irakasle M. Belen Arrietari elkarrizketa egitea erabaki dugu, ikastolan 39 urte pasatu ondoren, bere azken urtearen aurrean dagoela eta.

Zer moduz sentitzen zara zure azken urte honen aurrean?

Emozio ezberdinak ditut, alde bate-tik, poza, lasaiago biziko naizelako. Beste aldetik ordea, pena, hainbeste eman didan lanbide hau, utzi egin beharko dudalako.

Zer sentituko duzu faltan gehien?

Gauza bat baino gehiago, gehien-bat umeen eguneroko irribarreak eta haserrealdiak. Baita kideekiko harreman zuzena eta Ikastolako giro alai eta familiarra.

Aldaketarik somatuko zenuen ezta?

Bai, nola ez! Gaur egungo haurren izaera, gizartea bezalaxe aldatu egin da. Klaseak emateko orduan eta irakasle-ikasle arteko harremana ere asko aldatu da. Talde lanean gehiago oinarritzen da, lehengo bakarkako lana gutxituz.

Azken finean, gizartean eman diren aldaketak, gure lan egiteko eran

ere zuzenean eragin dute.

Gure gurasoak zure ikasleak ere baziren ezta?

Bai. Ilusio handia ematen dit nire ikasle ohien seme-alaben irakaslea izatea eta askotan, gurasoen izenez ere zuzentzen natzaizue, nahiz eta askotan zuei ez gustatu.

Kontatzeko anekdota edo pasarterik?

Asko ditut, baina bat, barru-barruan daramat, nire lehenengo urtean gertaturikoa. Frontoitik berandu iritsi ziren ikasleak eta ni, haserre xamar nengoen. Txitxareak bero-bero eginda neuzkan eta errieta egiten ari nintzela, ikasle bat, nire parean jarri, nire jarduna moztu eta *Sí, mi sargentol!* erantzun zidan, eskua gopetean jarritz. Momentu horretan, ez nekien barre egin edo *pastillas espabilondo* batzuk banatu...Azkenean, gela osoa barrez lehertu beharrean geratu ginen.

Eta hemendik aurrera zer?

Nire zaletasunak diren, paseatzea, jostea, poltsak egitea, e.a egiteko denbora izango dudanez, horietaz gozatuko dut luzaroan.



Malen Albeniz

Festa dibertigarriak denontzat



rioko festak direla eta gazteoi barrua mugitzen hasten zaigu. Ondo pasatzeko momentua izaten da

eta guk ez dugu besterik bilatzen. Ikastolako egun luzeen artean gustukoa izaten den tartetzat hartzen dira jaiak, atsedena hartu eta energiagaz betetzeko. Arazoa da guk, gazteok, ez dugula zeregin handirik herrian eta orokorrean ekintza gutxi antolatzen direla herritarrentzat. Festak direla eta goizean poz-pozik jaiki, kalera atera giroa egongo delakoan eta jarraian, ezer aurkitu ez.

Jakinaren gainean gaude festak hasi aurretik bilerak egoten direla hauek antolatzeko, baina iruditzen zait nerabeok saiakera batzuk egin ditugula aintzat hartu gaitzaten, dena dela, horrek ez du erantzunik jaso. Gure mailako jarduerak herrian ondo etorriko lirerateke gazteak animatu eta festetan parte hartu dezaten. Nerabeok atsegin ditugun gauzak baloratu eta jarduera politik egin daitezke.

Orioko festak adin guztietarako pertsonentzat eginak daude ezta? Gu kontuan hartzeko garaia iritsi dela uste dut.

Herriko festetan, gu kontutan hartzeko garaia da



SSIF

Aia eta Orio, Donostiako Zinemaldian

AINARA LASA / UROLA KOSTAKO HITZA



Oria ibaia, filmaren set nagusi

Koldo Almandoz zuzendari donostiarraren 'Oreina' filma Zinemaldiko 'New Directors' – Zuzendari Berriak– sailean aurkeztu da. Luzemetraia horrek Orioko parajeak ditu eszenatoki nagusi. Zehazki, Almandozek Oria ibaiaren bazterrak erabili ditu lan honetako eszena nagusiak grabatzeko. *Orioko Arraunetxera gerturatu ginen behin, eta hor inguruan barrurantz egiten zuen urmael bat topatu genuen; bertan zenbait*

itsasontziren eskeletoak aurkitu genituen. Aurkikuntza horretatik abiatuta, eszena berriak sortu genituen. Hori zuzendari batentzat zoragarria da, adierazi du Almandozek.



Maialen Sarasua, bi aldiz

Maialen Sarasuaren izena bi bider ageri da Zinemaldiko 66. edizioko filmen zerrendan: batetik, hainbat zuzendariren artean –tartean zinemagile oriotarra– egindako 'Gure Oroitzapenak' zinta proiektatu da, 'Zinemira' sailean. Halaber, Sarasua Mario Casas aktorea protagonista duen 'Bajo la piel del lobo' zintaren muntaiaz arduratu da; hau ere 'Zinemira' sailean lehiatu da.

Alemanian bizi da egun zinemagile oriotarra. 2005. urtetik telebistan eta zineman lan egiten du. Film editatzailea eta gidolaria ez ezik, Sarasuak hainbat laburmetrai zuzendu ditu.




FF Donostia Zinemaldia



Oier Aranzabal, 'Margolaria' filmeko zuzendaria

Aian bizi da gaur egun Oier Aranzabal kazetari zarauztarra. Donostiako Zinemaldian estreinatu berri du bere lehen filma, 'Margolaria'. Zinemira sailean lehiatu da Aranzabalen lana. Mikel Urdangarin musikariak eta Alain Urritia margolariak izandako elkarrizketa batean



abiarazten da kontakizuna. *Bidaia bat da dokumentala, bai zentzu metaforikoan, baita fisikoan ere. Artistaren beraren sorkuntza prozesuan egiten da bidaia, baita artistaren bizitzan ere. Ezezagunera egiten den bide bat bezala dago kokatua, artistak koadroro edo diskoro ezezagunera egiten duelako bidaia, eta itzultzean lehen baino beteago, edo batzuetan hustuago dagoelako. Hori kontatzen du dokumentalak, azaldu du Aranzabalek.*

Orioko olatuak, Aiako parajeak, Oteiza eta Lertxundi

Aitor Francesena 'Gallo' surflariari buruzko dokumentala ere aurkeztu da 66.edizioan. Zintan Orioko olatuak hartzen ageri da zarauztarra. Aiako parajeetan grabatutako 'Errementari' filma ere berriro proiektatu da Zinemaldian; Oteiza eta Lertxundiren aipamena ere azpimarratzekoa da, 'Culinary Zinema' saileko 'Bihar Dok 13' lanean.



AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Alokairua

• Logela alokagai Orion. Etxebizitza berria eta logela handia, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Etxeak 30 metroko terraza du. Tf: 652551507.

Salgai

• Aiako aurtengo intxaurrak salgai: 4 kilo 22€, tamaina onekoak, etxera eramanda. Pati deitu: 943132131 edota 634410993.

• Salgai: Aiako babarrun beltza saltzen da, 5€ kiloak. Tf: 636312231.

Lan eskaera

• Ume zaintzan zein etxeko lanak egiteko lan bila dabilen 29 urteko neska euskalduna naiz. Adin desberdinetako haurrekin hezitzaile eta irakasle bezala esperientzia dut. Tf: 638730544.

• Lan bila nabil, etxe barnean eta kanpoan egiteko: haur eta helduen zaintzan, ospitalean konpainia egiten... Gazteleraz, arabieraz, eta euskaraz zerbait dakit. Tf: 612488307

• Neska bat lan bila. Etxeko lanak, umeen zein adinekoen zaintza, garbiketa lanak. Asteburuetan zein aste tartean; baita orduka ere. Esperientzia duena eta erreferentziakin. Tf: 661133295

• Neska bat lan bila. Esperientzia zabala adinekoen zaintzan eta garbiketa lanetan. Papearak behar bezala ditut. Tf: 674123293

• Neska euskalduna, haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa egiteko eta klase partikularrak emateko. Lehen hezkuntzan graduatua. Umeekin esperientzia handikoa. Tf: 636312231

• Neska lan bila. Barne-zaintzailea, garbiketa lanak, eta zaintza. Esperientziaduna, Orion bizi naiz. Marlin. Tf: 632582365.

• LH-ko gradua egiten ari den neska oriotarra, LH-ko ikasleei klase partikularrak emateko prest, edozein irakasgai. EGA (euskara) eta FIRST (ingeleza) agiriak ditut. Rut Atxega. Tf: 678083496.


ITSASOA

| | ITSASGORA | ITSASBEHERA | ILARGIA |
|----|-----------------|-----------------|---------|
| 01 | 09:05 eta 21:39 | 02:54 eta 15:24 | ☉ |
| 02 | 10:09 eta 22:55 | 03:52 eta 16:33 | ☉ |
| 03 | 11:34 eta _____ | 05:07 eta 17:57 | ☉ |
| 04 | 00:29 eta 13:04 | 06:32 eta 19:21 | ☉ |
| 05 | 01:52 eta 14:18 | 07:49 eta 20:30 | ☉ |
| 06 | 02:56 eta 15:16 | 09:52 eta 21:26 | ☉ |
| 07 | 03:48 eta 16:05 | 09:44 eta 22:14 | ☉ |
| 08 | 04:33 eta 16:50 | 10:30 eta 22:57 | ☉ |
| 09 | 05:14 eta 17:32 | 11:12 eta 23:37 | ☉ |
| 10 | 05:53 eta 18:11 | 11:53 eta _____ | ☉ |
| 11 | 06:31 eta 18:50 | 00:16 eta 12:33 | ☉ |
| 12 | 07:08 eta 19:28 | 00:53 eta 13:12 | ☉ |
| 13 | 07:45 eta 20:07 | 01:31 eta 13:52 | ☉ |
| 14 | 08:24 eta 20:49 | 02:10 eta 14:35 | ☉ |
| 15 | 09:08 eta 21:39 | 02:52 eta 15:24 | ☉ |
| 16 | 10:04 eta 22:48 | 03:43 eta 16:25 | ☉ |
| 17 | 11:21 eta _____ | 04:50 eta 17:43 | ☉ |
| 18 | 00:18 eta 12:49 | 06:12 eta 19:05 | ☉ |
| 19 | 01:39 eta 13:59 | 07:29 eta 20:08 | ☉ |
| 20 | 02:35 eta 14:49 | 09:26 eta 20:55 | ☉ |
| 21 | 03:17 eta 15:29 | 09:10 eta 21:34 | ☉ |
| 22 | 03:53 eta 16:05 | 09:48 eta 22:09 | ☉ |
| 23 | 04:25 eta 16:38 | 10:23 eta 22:43 | ☉ |
| 24 | 04:57 eta 17:11 | 10:57 eta 23:16 | ☉ |
| 25 | 05:29 eta 17:45 | 11:32 eta 23:51 | ☉ |
| 26 | 06:03 eta 18:21 | 12:08 eta _____ | ☉ |
| 27 | 06:38 eta 18:59 | 00:27 eta 12:46 | ☉ |
| 28 | 06:17 eta 18:41 | 02:06 eta 12:22 | ☉ |
| 29 | 07:01 eta 19:30 | 00:48 eta 13:17 | ☉ |
| 30 | 07:54 eta 20:31 | 01:38 eta 14:14 | ☉ |
| 31 | 08:59 eta 21:48 | 02:38 eta 15:23 | ☉ |

ZAINZAKO BOTIKAK

- URRIA:
- 1ean, Gallo.
 - 2an, Izpizua.
 - 3an, Zulaika.
 - 4an, Lasa.
 - 5ean, Esparza.
 - 6an eta 7an, Gaminde.
 - 8an, Izpizua.
 - 9an, Zulaika.
 - 10ean, Lasa
 - 11n, Esparza.
 - 12an, Iturria.
 - 13an eta 14an, Larrañaga.
 - 15ean, Zulaika.
 - 16an, Zulaika.
 - 17an, Esparza.
 - 18an, Gaminde.
 - 19an, Larrañaga.
 - 20ean eta 21ean, Iturria.
 - 22tik 26ra, Lasa.
 - 27an eta 28an, Etxeberria.
 - 29an, Lasa.
 - 30ean, Gaminde.
 - 31ean, Larrañaga.

- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- **Esparza:** Santuiturri plaza, 5-6
943 50 47 83 Zarautz
- **Iturria Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12.
943 83 29 70 Zarautz
- **Izpizua:** Urdaneta, 8.
943 133183 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16.
943 13 38 14 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza.
943 83 09 36 Orio
- **Gaminde:** Gipuzkoa Kalea, 68
943 47 75 84 Zarautz.
- **Gallo:** Zigordia Kalea, 17
943 13 40 19 Zarautz.
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41
943 13 39 94 Zarautz



Orio

Oteiza Astea

- Egitarau guztia, kontrazalean.

Ipuin Kontalaria

- Urriaren 16an, asteartean, Pello Añorga ipuin kontalaria, 5 urtetik 8 urterakoentzat. 18:00etan, kultur etxeko areto nagusian.
- Urriaren 22an, astelehenean, Miriam Mendoza ipuin kontalaria, 3 eta 6 urte bitartekoentzat (gurasoekin edo/eta zaintzaileekin) 18:00etan, kultur etxeko areto nagusian.

Bingoa

- Urriaren 19an, asteazkenean, bingoa, kultur etxeko areto nagusian, 16:30etik 18:30era.

Bakarrizketa

- Urriaren 19an, ostiralean, Euskaraldiak antolatuta, bakarrizketa Beatriz Egizabalen eskutik.

Euskal Dantza ikastaroa

- Irailaren 26an hasita, asteazkenean, 21:00etan, Kosta Tailerrean: fandangoa, arin-arin-a, mutxikoak, larrain dantza, e.a.

Euskadiko Arraun Zirkuituko finala

- Urriaren 6an, Arraunetxen,

Aia

Podologoa

- Irailaren 29an, larunbatean, podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943 131144

Aguraingo Azoka

- Urriaren 9an, asteartean, Aguraingo azoka ikusi, Araian bazkaldu eta Zumarragako Antioko ermita bisita.

Ikastaroak

- Musika: ume eta helduentzat, trikitixa, panderoa, gitarra eta pianoa.
- Kirola: zumba, pilates, yoga eta hipopresiboak. Judo haurrentzat.
- Informazio gehiago: 943 13 09 24

Iturrran Parketxea

- Kontsultatu urriko ekintzak Iturrran Parketxeko webgunean.

Oteiza 110

OTEIZAREN JAIOTZAREN 110. URTEURRENA

URRIAK
16
ASTEARTEA

19:00

Solasaldia Arraunetxan: 'Oteizarekin batetik bestera'
Oskar Alegria, kazetari eta zinemagilea
Bernardo Atxaga, idazlea

URRIAK
18
OSTEGUNA

19:00

'**Oteiza: 1908-2008 y siglo**' dokumentalaren proiektzioa Salatxo aretoan

URRIAK
19
OSTIRALA

11:00

Herriko **haurren omenaldia Oteizari** 'Pietatea' ren azpian

URRIAK
20
LARUNBATA

10:00

Irteera Alzuzako Oteiza museora autobus geltokitik

11:15

Bisita **Oteiza museora**

14:30

Bazkaria Iruñeko Aldapa elkartearen
Izena urriaren 16a baino lehen eman
behar da telefonoz edo emailez

URRIAK
21
IGANDEA

18:30

Esku Harriak: Oteizaren (h)aria
dantza-bertso-musika ikuskizuna plazan

